



JOKOAREN
EUSKAL BEHATOKIA
OBSERVATORIO VASCO
DEL JUEGO

JOKOAREN PANORAMIKA EKONOMIKO- ENPRESARIALA

**Jokoaren Euskal Behatokia
Jokoaren Euskal Behatokia,
2021**



Aurkibidea

Laburpen exekutiboa.....	1
1. Sarrera	5
2. Eskumen eta lege esparruari buruzko sarrera labor bat	8
2.1. Eskumenen esparrua.....	9
2.2. EAEn jokoaren sektoreari buruzko dagoen legeria nagusia	9
3. Enpresak eta establezimenduak	12
3.1. Enpresak (Eustaten datuak)	13
3.2. Establezimenduak (Eustaten datuak).....	13
3.3. Enpresak eta establezimenduak, tipologiaren arabera	16
3.4. Enpresa ehunari buruzko beste datu batzuk: EAEko elkarteak eta enpresa nagusiak	18
4. Jokoaren industriaren kopuru handiak Euskadin	20
4.1. Jokoaren industriaren makromagnitudeak Euskal Autonomia Erkidegoan.....	21
4.2. Jokoaren industriako enplegua.....	23
4.3. EAEko ausazko jokoetako sarien eta apustuen bolumen erantsia	26
4.3.1. Datu erantsiak (EAEko estatu mailako onlineko jokoa barnean hartu gabe)	26
4.3.2. Datu erantsiak (EAEko estatu mailako onlineko jokoa barnean hartuta).....	36
4.4. Jokoa eragindako zerga bilketa	38
5. Informazio zehatza, jarduerako azpitaldeen arabera	42
5.1. SELAEn jokoa	43
5.2. ONCE.....	48
5.3. Kudeaketa pribatuko kirol apustuak.....	50
5.4. Kasinoak	60
5.5. Bingoak.....	65
5.6. B motako makinak.....	67
5.7. Joko aretoak.....	71
5.8. Estatu mailako onlineko jokoa	73
5.9. Beste batzuk.....	74
6. Estatu mailako datu konparatiboak.....	76
Anexo A. Metodologia	82



Aurkibidea

Koadroen aurkibidea

3.1 koadroa	EAEko ausazko jokoen eta apustuen jardueren sektoreko (EJSN-2009 92) enpresen kopurua, sozietate egoitzaren tokiaren arabera, 2011-2020.....	13
3.2 koadroa	EAEko ausazko jokoen eta apustuen jardueren sektoreko (EJSN 92) establezimenduen kopurua, lurralde historikoak eta EAEko guztizkoa, 2011-2020.....	14
3.3 koadroa	Ausazko jokoen eta apustuen jardueren sektoreko (EJSN 92) bost establezimendu edo gehiago dituzten EAEko udalerri nagusiak, 2011-2020.....	15
3.4 koadroa	Enpresa kopurua joko tipologien arabera, EAE, 2011-2020.....	17
3.5 koadroa	Establezimendu kopurua joko tipologien arabera, EAE, 2011-2020.....	17
3.6 koadroa	Egoitza soziala EAEn duten ausazko jokoen eta apustuen jardueren sektoreko (EJSN 92) eta horiei lotutako beste sektore batzuetako enpresa nagusiak, 2018ko datuak (mila eurotan).....	19
4.1 koadroa	Ausazko jokoen eta apustuen jardueren sektoreko (EJSN 92) makromagnitude nagusiak, EAE, 2013-2017.....	21
4.2 koadroa	Ausazko jokoen eta apustuen jardueren sektoreko (EJSN 92) makromagnitude nagusiak, lurralde historikoak, 2013-2017.....	22
4.3 koadroa	Gizarte Segurantzaren afiliatutako enplegua ausazko jokoen eta apustuen jardueren sektorean, lurralde historikoak eta EAE (EJSN 92), 2011-2019.....	23
4.4 koadroa	Zuzeneko enplegua: ausazko jokoen eta apustuen sektorean Gizarte Segurantzaren afiliatutako langileak (EJSN 92), norberaren/besteren kontura, lurralde historikoak eta EAE, 2013-2018.....	25
4.5 koadroa	Ausazko jokoen eta apustuen jardueren sektoreko (EJSN 92) langile okupatuen datuak, EAE, 2013-2017.....	26
4.6 koadroa	Apustu, loteria eta ausazko jokoetako gastua (eurotan), EAE, 2011-2019.....	28
4.7 koadroa	Apustu, loteria eta ausazko jokoetan jasotako sariak (eurotan), EAE, 2011-2019.....	31
4.8 koadroa	Sarien eta gastuaren arteko ratioa apustu, loteria eta ausazko jokoetan, EAE, 2011-2019.....	32
4.9 koadroa	Gastu erreala (jokatutako zenbatekoen eta lortutako sarien arteko aldea) apustu, loteria eta ausazko jokoetan (eurotan), EAE, 2011-2019.....	34
4.10 koadroa	Gastu osoa eta gastu erreala apustu, loteria eta ausazko jokoetan (eurotan), estatuko onlineko jokoa barnean hartuta, EAE, 2019.....	36
4.11 koadroa	Euskal Autonomia Erkidegoko jokoaren gaineko zergen banakapena. Lortutako zerga bilketa erreala (eurotan), kutxaren irizpidea, autonomia erkidegoko zergak izan ezik (aitortutako eskubideak) (2011-2020).....	39
4.12 koadroa	Eusko Jaurlaritzako Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren administrazio tasen (ez zerga tasen) bilketa, 2011-2020 (eurotan).....	40
4.13 koadroa	Ausazko jokoen eta apustuen jardueren sektoreko (EJSN 92) mozkinen gaineko zergak, lurralde historikoak eta EAEko guztizkoa (mila eurotan), 2013-2017.....	40
5.1 koadroa	SELAEn merkataritza sarea EAEn, 2011-2019.....	44
5.2 koadroa	SELAEn apustu, loteria eta ausazko jokoetako guztizko gastuak, moten arabera (eurotan), 2012-2019.....	45
5.3 koadroa	SELAEn apustu, loteria eta ausazko jokoetako sariak, moten arabera (eurotan), 2012-2019.....	47
5.4 koadroa	ONCEren merkataritza sarea EAEn, 2011-2019 (agente saltzaileak).....	48



Aurkibidea

5.5 koadroa	ONCEren apustu, loteria eta ausazko jokoetako gastuak, moten arabera (eurotan), EAE, 2011-2020.....	48
5.6 koadroa	ONCEren apustu, loteria eta ausazko jokoetako sariak, moten arabera (eurotan), EAE, 2011-2020.....	49
5.7 koadroa	Apustu-lokalen eta apustu-lokal gisa gaitutako joko aretoen kopurua, lurralde historikoak eta EAE, 2011-2020.....	50
5.8 koadroa	Apustu makinien enpresa operadoreak, lurralde historikoak eta EAE, 2011-2020.....	51
5.9 koadroa	Apustu makinien baimenak, merkaturatzeko kanalaren arabera, lurralde historikoak eta EAE, 2011-2020.....	52
5.10 koadroa	Kudeaketa pribatuko kirol apustuen bolumena, apustu kanal handien arabera, lurralde historikoak eta EAE, 2011-2020 (eurotan).....	54
5.11 koadroa	Kudeaketa pribatuko kirol apustuak, kopurua, guztizko bolumena apustuko eta batez besteko bolumena apustu kanal zehatzaren arabera, EAE, 2011-2020 (eurotan).....	56
5.12 koadroa	Kudeaketa pribatuko kirol apustuen bolumena, apustu kanal handien arabera, lurralde historikoak eta EAE, 2011-2020 (eurotan).....	60
5.13 koadroa	Lasarte-Donostiako Hipodromoko barneko apustuak, 2011-2019 (eurotan).....	60
5.14 koadroa	EAEko kasinoei buruzko informazioa, 2011-2020.....	61
5.15 koadroa	C motako joko makinatarako baimenak (kasinoak), lurralde historikoak eta EAE, 2011-2020.....	61
5.16 koadroa	Kasinoetan jokatutako zenbatekoak eta beste diru sarrera batzuk (eurotan), EAE, 2011-2019.....	63
5.17 koadroa	Kasinoetako sariak (eurotan), EAE, 2011-2019.....	64
5.18 koadroa	Bingo kopurua, lurralde historikoak eta EAEko guztizkoa, 2011-2020.....	65
5.19 koadroa	Bingoetako B mota makinien baimenak, lurralde historikoak eta EAE, 2016-2020.....	66
5.20 koadroa	Bingoko kartoen salmenta, motaren arabera, EAEn, 2011-2019 (eurotan).....	66
5.21 koadroa	Bingoaren sari zenbatetsiak, motaren arabera, EAEn, 2011-2019 (eurotan).....	67
5.22 koadroa	B motako makinien enpresa operadoreak, lurralde historikoak eta EAE, 2011-2020.....	67
5.23 koadroa	B motako makinien baimenak, haien kokalekuaren arabera, lurralde historikoak eta EAE, 2011-2020.....	68
5.24 koadroa	Jokatutako zenbatekoak, sariak eta GGRa EAEko B motako makinetan, 2013-2019 (eurotan).....	70
5.25 koadroa	Joko aretoen enpresa operadoreen kopurua eta joko aretoen kopurua, lurralde historikoak eta EAE, 2011-2020.....	71
5.26 koadroa	Joko aretoetako B mota makinien baimenak, lurralde historikoak eta EAE, 2016-2020.....	72
5.27 koadroa	Onlineko jokoan jokatutako zenbatekoak, lurralde historikoak, EAE eta estatuko guztizkoa (eurotan), 2017-2019.....	74
5.28 koadroa	Zozketen kopurua, lurralde historikoak eta EAE, 2011-2020.....	75
5.29 koadroa	Ausazko konbinazioen kopurua, lurralde historikoak eta EAE, 2011-2020.....	75
6.1 koadroa	Apustu, loteria eta ausazko jokoetan izandako gastu erreala (jokatutako zenbatekoen eta lortuko sarien arteko aldea).....	78
6.2 koadroa	Apustu, loteria eta ausazko jokoetan EAEn izandako gastu errealar (jokatutako zenbatekoen eta lortutako sarien arteko aldea) estatuko guztizkoaren barruan zer ehuneko dagokion, 2014-2019.....	79



Aurkibidea

6.3 koadroa	Gastu erreala (jokatutako zenbatekoen eta lortutako sarien arteko aldea) apustu, loteria eta ausazko jokoetan (<i>per capita</i> eurotan), EAE eta estatuko guztizkoa, 2014-2019	80
-------------	---	----

Grafikoen aurkibidea

3.1 grafikoa	Ausazko jokoen eta apustuen jardueren sektoreko (EJSN 92) establezimenduen kopurua, EAEko guztizkoa, 2011-2020	14
4.1 grafikoa	Ausazko jokoen eta apustuen jardueren sektorearen (EJSN 92) EAEko guztizkotik lurralde historiko bakoitzari zer ehuneko dagokion, 2017	23
4.2 grafikoa	Gizarte Segurantzaren afiliatutako enplegu osotik ausazko jokoen eta apustuen jardueren sektoreari zer ehuneko dagokion (EJSN 92), lurralde historikoak eta EAE, 2019	24
4.3 grafikoa	Apustu, loteria eta ausazko jokoetan EAEn egindako gastu osoaren bilakaera, EAE, 2013-2019 (milioi eurotan)	29
4.4 grafikoa	Guztizko gastuaren pisuaren bilakaera era guztietako apustu, loteria eta ausazko jokoetan, EAE, 2013-2019.	29
4.5 grafikoa	Sarien eta gastuaren arteko ratioa apustu, loteria eta ausazko jokoetan, EAE, 2019	33
4.6 grafikoa	Gastu errearen bilakaera (jokatutako zenbatekoen eta lortutako sarien arteko aldea) apustu, loteria eta ausazko jokoetan, EAE, 2013-2019 (milioi eurotan)	35
4.7 grafikoa	Gastu errearen (jokatutako zenbatekoen eta lortutako sarien arteko aldea) pisuaren bilakaera apustu, loteria eta ausazko jokoetan, EAE, 2013-2019	35
4.8 grafikoa	Gastu osoaren eta gastu errearen (jokatutako zenbatekoen eta lortutako sarien arteko aldea) pisua apustu, loteria eta ausazko jokoetan, EAE, 2019	37
5.1 grafikoa	SELAEn apustu, loteria eta ausazko jokoetako gastuaren pisuaren bilakaera, moten arabera, 2012-2019	46
5.2 grafikoa	ONCEren apustu, loteria eta ausazko jokoetako gastuaren pisu erlatiboaren bilakaera, moten arabera, 2011-2020	49
5.3 grafikoa	Apustu-lokalen eta apustu-lokal gisa gaitutako joko aretoen kopuruaren bilakaera, EAE, 2011-2020	50
5.4 grafikoa	Apustu makinaren baimenen kopuruaren bilakaera, merkaturatzeko kanalaren arabera, EAE (2011-2020)	52
5.5 grafikoa	Kudeaketa pribatuko kirol apustuen bolumenaren pisu erlatiboaren bilakaera, kanal handien arabera, 2011-2020	55
5.6 grafikoa	Batez besteko bolumena apustu bakoitzeko (euro/apustu), kanalaren arabera, 2020	58
5.7 grafikoa	Kudeaketa pribatuko kirol apustuetako batez besteko apustuaren bolumena (euro/apustu), lurralde historikoak eta EAE (2011-2020) ..	59
5.8 grafikoa	Kasinoan bisitari bakoitzeko jokatutako zenbatekoa (euro/bisitari), EAE (2011-2019)	64
5.9 grafikoa	B motako makinaren baimen kopuruaren bilakaera, EAE, 2011-2020 ..	69
5.10 grafikoa	EAEn dauden joko aretoen kopuruaren bilakaera, 2011-2020	72
6.1 grafikoa	Apustu, loteria eta ausazko jokoetan EAEn izandako gastu erreari (jokatutako zenbatekoen eta lortutako sarien arteko aldea) estatuko guztizkoaren barruan zer ehuneko dagokion, 2019	79
6.2 grafikoa	Guztizko gastu erreala (jokatutako zenbatekoen eta lortutako sarien arteko aldea) apustu, loteria eta ausazko jokoetan (<i>per capita</i> eurotan), EAE eta estatuko guztizkoa, 2014-2019	81



Laburpen exekutiboa



Laburpen exekutiboa

- Eustatek emandako informazioaren arabera, ausazko jokoen eta apustuen jardueren sektoreak (EJSN-2009 92) 155,9 milioi euroko balio erantsi gordina sortu zuen 2017an (urte horretakoak dira eskura ditugun azken datuak). Hau da, EAE osoko BPGd-aren balioaren % 0,22¹. EAE osoko negozio zifraren zenbateko garbia, berriz, 561,7 milioi eurokoa izan zen urte horretan bertan.
- EAEko ausazko jokoen eta apustuen jarduerak eragindako zerga bilketari dagokionez, EAEko jokoaren sektorearen zati batek gutxi gorabehera 119,4 milioi euroren diru sarrerak ekarri zizkion EAEko diru-kutxei 2017. urtean (dagoen azken informazioa urte horretakoa da). Zenbateko hori 132,4 milioi eurokoa da, gainera, gizarte kotizazioak kontuan hartuz gero. 2018. urtean jokoaren sektoreko zergei lotutako zerga bilketa 57,3 milioi eurokoa izan zen.
- EAEko jokoaren merkatua hiru operadore mota nagusik osatzen dute, hau da: joko-lokalen jabe diren enpresek (joko aretoak, bingoak, kasinoak eta apustu-lokalak), jokoaren enpresa operadoreek (zenbait makina mota ustiatzeko baimenak dituzten pertsona fisikoak edo juridikoak) eta, azkenik, beste enpresa mota batzuek (makinen fabrikatzaileak, inportatzaileak eta saltzaileak, edo interkonexio sistemenak). Eustaten informazioari dagokionez, jokoaren sektoreko 449 enpresa zeuden 2020. urtean, eta 569 establezimendu. Haien erdiak baino gehiago Bizkaian zeuden (307, guztien % 54,0), haren atzetik Gipuzkoan (190, guztien % 33,4) eta Araban (72, guztien % 12,7). Ausazko jokoen eta apustuen lokal gehien duten udalerriak EAEko hiru hiriburuak dira, hau da, Bilbo lehenik, eta Donostia eta Gasteiz ondoren, establezimendu kopuru berarekin, eta horien atzetik daude beste udalerri batzuk, hala nola Barakaldo, Irun, Basauri, Portugalete, Galdakao eta Getxo.
- Gizarte Segurantzako 2019. urteko afiliazio datuei begiratuz gero (eskura dagoen azken urtea da), EAE osoan 1.797 lagun zeuden ausazko jokoen eta apustuen jarduera sektorean afiliatuta; EAEko afiliatu guztien % 0,18, alegia. Ehuneko hori aski antzekoa zen Gipuzkoan (% 0,19) eta Bizkaian (% 0,21), baina nabarmen txikiagoa zen Araban (% 0,11). Kopuru horiez gain, eta azterketarako erreferentziazat ausazko jokoen eta apustuen jardueren sektoreari atxikitako establezimenduak hartuta (EJSN-2009 92), sektore horretako langileak 2.431 ziren EAE osoan; hortaz, horrek esan nahi du EAEko establezimenduetan beste 4 enplegu daudela jarduera lotutako beste jarduera batzuetan (ostalaritzan, adibidez) EJSN 92 sektorean zuzenean afiliatutako 10 lanpostu bakoitzeko.

¹Euskadiko BPGd-a 2017. urtean 71.239.291.000 eurokoa izan zen.



Laburpen exekutiboa

- EAEko apustuen, loterien eta ausazko jokoaren guztizko gastua² 1.705,4 milioi eurokoa izan zen 2019an (eskura dagoen azken urtea); denboran izaten ari zen guztizko gastuaren hazkundea berresten du horrek. Gastu hori neurri handi batean, B motako makinetako gastuari dagokio (641,7 milioi euro edo guztizkoaren % 37,6), ondoren SELAEn joko/apustuei dagokie (482,4 milioi euro edo guztizko gastuaren % 28,3, eta horren barruan Loteria Nazionala nabarmentzen da: guztizkoaren % 17,0) eta, azkenik, kudeaketa pribatuko kirol apustuak (376,6 milioi euro edo guztizkoaren % 22,1). Beste joko mota batzuetan (bingoak, ONCE eta kasinoak) joko bolumen txikiagoa dago (bingoen % 4,9tik kasinoen % 3,0ra artean).
- Ditugun datuek erakusten dute joko moten artean ez dela joera bera egon denboran zehar; hala, bada, SELAEn jokoetan, B motako makinetan, ONCEn edo kasinoetan izandako gastuak joera egonkorra edo beheranzko joera izan du, eta goranzkoa, ordea, kudeaketa pribatuko kirol apustuetako gastuak.
- Lortutako informazioaren arabera, apustu, loteria eta ausazko jokoetako gastuen gainean dagoen sarien ratioa, EAEn, 0,69 izan zen oro har; hau da, sariatzen 0,69 euro jasotzen dira gastatzen den euro bakoitzeko (2019ko datuak). Kudeaketa pribatuko kirol apustuetan (0,86) eta kasinoetan (0,79) dago sarien eta gastuen arteko ratorik handiena, eta ONCEn dagokio, aldiz, ratorik txikiena (0,44 batez beste).
- “Gastu errealak” (hau da, jendeak benetan jokatutako zenbatekoa, eta jokatutako zenbatekoaren eta lortutako sarien arteko aldea) adierazten du EAEko herritarrek 2019an (urte horretakoa da dugun azken informazioa) jokatutako zenbateko erreala guztira 458,7 milioi euro izan zela; denboran goranzko joera izan du 2017ra arte, eta behera egin du orduraz geroztik. Gastu erreala gehienbat SELAEn loterietan biltzen da (192,5 milioi euro edo guztizkoaren % 41,0), eta haren atzetik, B motako makinetan (154,0 milioi euro edo % 32,8), kudeaketa pribatuko kirol apustuetan (53,4 milioi euro edo % 11,4) eta ONCEn (39,1 milioi euro edo guztizkoaren % 8,3). Horri dagokionez, Loteria Nazionalaren gastua nabarmentzen da, hari baitagokio gastu erreala osoaren % 25,3 (2019ko datuak).
- Estatuko apustuen, loterien eta ausazko jokoaren gastu erreala osoaren % 5,1 dagokio EAEn³, proportzio hori txikixeagoa da EAEko BPGd-ak estatuko guztizkoan duen ehunekoa baino (% 6,4 2019an). Datu horrek gorabehera

² Gastu horren barruan SELAEn (Sociedad Estatal de Loterías y Apuestas del Estado SA) eta ONCEn dagokien informazioa jasotzen da, bai eta Lasarte-Donostia-ko Hipodromoko barneko apustuei dagozkien datuak eta bingoak, kasinoak, kudeaketa pribatuko kirol apustuei, eta, azkenik, B motako makinei buruz dauden datuak ere.

³ Aurkeztutako datuetan honako hauetan egindako gastuari buruzko informazioa dago: SELAEn apustuak, ONCE, bingoak, kasinoak, kudeaketa pribatuko kirol apustuak eta B motako makinak.



Laburpen exekutiboa

handiak izan ditu 2014tik 2019ra arteko aldian, eta, urtearen arabera, % 5,0tik % 6,4ra artean egon da. Apustu motaren araberrako azterketa xehatua eginez gero, ikusten da EAERI estatuko gastu errealean dagokion ehunekoa nabarmen handitzen dela kudeaketa pribatuko kirol apustueta, batezbestekoa ia halako hiru (estatuko gastu erreal guztiaren % 13,6, 2019ko datuen arabera). Horrekin batera, oso nabarmen ageri da, halaber, SELAERen Loteria Nazionaleko gastua (estatuko gastu errealaren % 6,9). Aitzitik, bingo eta kasinoei dagokienez, estatuko gastu errealaren % 3 inguru dagokio EAERI, eta gainerako joko motetan EAERen proportzioa % 4 da gutxi gorabehera (2019ko datuak).

- Aztertutako apustueta, ausazko jokoetan eta loterietan EAERI 18 urtetik gorako biztanleek *per capita* egindako batez besteko gastu erreal 256,04 eurokoa izan zen (2019. urtea), estatuko batez besteko gastua baino handixeagoa (237,29 euro urte horretan; % 7,9 gehiago, alegia). Denboran izaniko bilakaeraren ikuspegitik, EAERI batez besteko *per capita* gastuak gora egin du 2017ra arte, eta behera orduz geroztik, baina estatuko batezbestekoa baino handiagoa izan da beti (azken urteotan aldea murriztuz joan da, halere).
- Joko mota zein den, EAERI herritarren batez besteko *per capita* gastu erreal, joko jakin batzuetan, handiagoa da estatuko batezbestekoa baino; hala, bada, nabarmendu egiten da kudeaketa pribatuko kirol apustueta gastua (29,25 euro eta 10,25 euro, hurrenez hurren) eta, neurri txikiagoan, SELAERen Loteria Nazionaleko gastua (64,99 euro eta 44,70 euro, hurrenez hurren). Gainerako joko motetako gastua, aldiz, txikiagoa da EAERI estatuko batezbestekoaren aldean (ONCE, bingoak, kasinoak edo B motako makinak). Alde horri eutsi egin zaio, oro har, 2014tik 2019ra arteko aldian.
- Azkenik, estatuko gastu oso zenbatetsiaren bolumenaren % 4,06 inguru dagokio EAERI (2018ko urteko gutxi gorabeherako datuak) joko jardueren gaineko zergaren lau hilean behingo aitorpenetatik (763 eredu) jasotako informazioaren arabera. Aitorpena EAERI egiten duten estatu mailako onlineko joko operadoreei dagokie informazio hori (39 operadore 53tik). Zenbaki horiek testuinguruan jarrita, eta 2019ko zifrak erreferentziatzen hartuta, estatu mailako onlineko jokoaren guztizkoa da gastu osoaren iturri nagusia, eta haren atzetik, B motako makinei, SELAERen jokoei edo kudeaketa pribatuko kirol apustuei dagokien gastua dago. Hala ere, eta “gastu errealaren” datuak erreferentziatzen hartuta, nabarmen txikiagoa da estatu mailako onlineko apustueta gastu erreal; tarteko mailan dago, hain zuzen ere, ONCEko eta kasinoetako gastu errealaren artean.



1.

Sarrera



Urriaren 16ko 147/2018 Dekretuaren bidez (EHAA, 2018ko urriaren 23koa) sortu zen Jokoaren Euskal Behatokia Euskal Autonomia Erkidegoan, jokoaren errealitatearen gaineko informazio, azterketa eta ikerketarako zerbitzu zentralizatu gisa. EAEn jokia arautzen duen agintaritzari fenomenoaren ikuspegi osoa ematea da horren helburua, politika publikoak ezartzeko orduan lagungarri izan dadin.

Jokoaren Euskal Behatokiak, bere xedeari dagokionez, txosten hau sortzeko eskatu du. Behatokia Eusko Jaurlaritzako Joko eta Ikuskitzen Zuzendaritzaren mende dago. Jokoaren Euskal Behatokiak IKEI Research & Consultancy enpresaren laguntza teknikoa izan zuen lehen bertsioa idazteko (2019), baina hura 2020-2021ean eguneratzeko, berriz, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Soziologia eta Gizarte Langintzen laguntza izan du.

Euskal Autonomia Erkidegoak (EAE) eskumen eksklusiboa du kasinoen, jokoen eta apustuen arloan, kirol eta ongintzako elkarrekiko apustuak alde batera utzita, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 10.35 artikuluari jarraikiz. EAEn Jokoa Arautzeko Agintaritzaren atribuzioak dira, besteak beste, jokoi buruzko politika publikoak egitea; sentsibilizazioa sustatzea joko arduratsu eta bermedun baten mesedetan; eta jokoak herritarren jokabideekin, adingabeekin eta mendekotasunezko jokabideen kontrolarekin lotuta daukan gizarte intzidentziari buruzko ikerketa, bai eta jokoen antolaketa baimentzea eta kontrolatzea.

Esparru horretan, jokoaren politika publikoak zehazteko eta ebaluatzeko, beharrezkoa da horiek zer errealitatetarako diren jakitea modu sistematikoan, eta ezagutza hori etengabe berritzea; eta, horretarako, aintzat hartzea, jokoaren eskaintza eta gizarte eskaria ez ezik, baita autonomia-erkidegoan bertan zein beste eremu geografiko batzuetan horren inguruan agertzen diren joera prospektiboak ere. Era berean, COVID-19ak eragindako krisi sanitario, ekonomiko eta sozialaren ondorioz 2020. urtean izandako ezohiko testuinguruaren barruan, are premiazkoagoa da adierazleak edukitzea, pandemiak eta horrekin batera hartutako neurriek jokoaren sektorean zer eragin izan duten neurtu ahal izateko. Behar hori are argiagoa da kontuan hartzen badugu ezen, ezohiko egoera horren ondorioz, hain zuzen ere, jokoaren sektorea ustekabeko krisia izaten ari dela, eta sakon aztertu behar direla haren ezaugarriak, irismena eta eragina, sektore horretan politika publikoak zehaztu, diseinatu eta ezartzeko.

Helburu horiekin, Behatokia oinarritzeko adierazleen multzo edo sistema bat lantzen ari da, jokoaren fenomenoaren diagnostiko eguneratu bat eduki ahal izateko, eta eginkizun bikoitz honekin: batetik, erakundeei zerbitzua eta laguntza ematea erabaki politikoak eta administratiboak hartzeko orduan; eta bestetik, komunitateari zerbitzua ematea eta informazio sistematizatu eta egituratuaren sarbide askea eskaintzea. Era horretan, proiektuaren bidez, ekintza plan bat landu nahi dugu, funtsean neurri zuzentzaileak zehaztu eta ezartzeko, helburu hauekin: jokoaren erabilera desegokia eragozteko, eta jokoak eragindako arriskuak eta kalteak gutxitzea.



Sarrera

Are gehiago zehaztuta, dokumentu honen xedea da EAEko jokoaren industriaren panoramika zehatza aurkeztea ikuspegi ekonomiko-enpresarial batetik. Horretarako, txostenak bost kapitulu izango ditu, sarrerari buruzko kapitulu honetaz gain. 2. kapituluan EAEko jokoaren sektoreari buruz dagoen eskumen eta lege esparruari buruzko sarrera labur bat dago, eta 3. kapituluan, berriz, enpresa eta establezimendu kopuruari buruzko informazioa, bai eta EAEko enpresa nagusien zerrenda ere.

Euskadiko jokoaren industriaren kopuru handiei buruzko informazioa jaso dugu 4. kapituluan; honako hau, besteak beste: sektoreko makromagnitude nagusiei buruzko informazioa, enpleguari buruzko datuak, zerga bilketarenak eta EAEko ausazko jokoetako sarien eta apustuen bolumen erantsiari buruzko informazioa. Ondoren, 5. kapituluan, jarduerako azpitaldeen arabeko informazio zehatza biltzen da, honako hauei buruzko datuak, batez ere: SELAren jokoak, ONCEnak, kudeaketa pribatuko kirol apustuak, kasinoak, bingoak, B motako makinak, joko aretoak, onlineko jokoak eta bestelako jokoak (zozketak eta ausazko konbinazioak, funtsean). Azkenik, jokoari buruzko EAEko datuak eta estatukoak alderatu ditugu 6. kapituluan.



2.

**Eskumen eta lege
esparruari buruzko
sarrera labur bat**



2.1. Eskumenen esparrua

Gure herrian ausazko jokoak merkaturatzeko, baimena eman behar du haiek arautzeko eskumena duen administrazioak. Hala,

- estatu mailako ausazko jokoak dira estatu mailako ausazko onlineko jokoak (apustuak, kasinoko jokoak, pokerra, ausazko makinak eta bingoa) eta lehiaketak, bai eta jarduera erreserbari lotutako jokoak ere, SELAeri eta ONCeri dagozkien loteriak, funtsean. Kasu horietan, Jokoa Antolatze Zuzendaritza Nagusiak du arautzeko eskumena, ONCeri dagokionez izan ezik, kasu horretan Babesletza Kontseiluari baitagokio hura arautzea.
- Gainerako guztiak, berriz, autonomia erkidegoaren eskumeneko ausazko jokoak dira, eta horien artean daude aurrez aurreko jokoak (kasinoko jokoak, bingoak, joko eta ausazko makinak, apustuak), bai eta autonomia erkidegoako onlineko jokoa, eremu autonomikoko loteriak eta, azkenik, bestelako joko tradizionalak. Kasu horretan, dagokion autonomia erkidegoako administrazio unitateak du eskumena. Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE), unitate hori Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailburuordetzaren Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzari dagokio.

2.2. EAEn jokoaren sektoreari buruzko dagoen legeria nagusia

Hona hemen EAEn jokoaren sektorea arautzeko gaur egun dagoen eta aplikatu beharreko legeria nagusia:

Legeak

- 7/2012 Legea, apirilaren 23koa, barne-merkatuko zerbitzuei buruz Europako Parlamentuak eta Kontseiluak abenduaren 12an emandako 2006/123/EE Direktibara egokitze aldera zenbait lege aldatzekoa. (apirilaren 30eko EHAA, 84. zk.).
- 4/1991 Legea, azaroaren 8koa (testu bateratua), Euskal Herriko Autonomi Elkartean jokoa arautzekoa. (azaroaren 25eko EHAA, 237. zk.).

Dekretuak

- 120/2016 Dekretua, uztailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoan jokoaren erregelamendu orokorra onesten duena. (irailaren 6ko EHAA, 169. zk.).
- 181/2010 Dekretua, uztailaren 6koa, Euskadiko Jokoen Katalogoa bigarrenez aldatzen duena. (uztailaren 23ko EHAA, 141. zk.).



Eskumen eta lege esparruari buruzko sarrera labur bat

- 69/1997 Dekretua, martxoaren 25ekoa, Euskal Autonomi Elkarteko Jokoen Katalogoa onartzen duen dekretuko hutsak zuzentzeko dena (apirilaren 15eko EHAA, 70. zk.).
- 277/1996 Dekretua, azaroaren 26koa, Euskal Autonomi Elkarteko Jokoen Katalogoa onartzen duena. (abenduaren 20ko EHAA, 245. zk.).

Aginduak eta ebazpenak

- Agindua, 2017ko azaroaren 21ekoa, Segurtasuneko sailburuarena, joko-aretoetarako eta jolas-aretoetarako lokalen betekizunak eta ezaugarriak arautzen dituena. (2017ko azaroaren 30eko EHAA, 229. zk.).
- Agindua, 2017ko azaroaren 17koa, Segurtasuneko sailburuarena, joko-makinen betekizunak eta ezaugarri teknikoak eta haien interkonexio-baldintzak arautzen dituena.
- Agindua, 2014ko azaroaren 5ekoa, Segurtasuneko sailburuarena, e-Plus bingoaren erregelamendua onesten duena.
- Agindua, 2013ko uztailaren 17koa, Segurtasuneko sailburuarena; honen bidez, lehiaketa publikorako deialdia egin da Euskal Autonomia Erkidegoan apustuak ustiatzeko baimen bat esleitzeko (2013ko uztailaren 30eko EHAA).
- Agindua, 2012ko azaroaren 28koa, Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, otsailaren 10eko 31/2004 Dekretuaren bidez onartutako Bingo-jokoaren Araudia garatzen duena.
- Agindua, Herrizaingoko sailburuarena, 2012ko ekainaren 28koa, bingo-joko elektronikoaren araudia onartzen duena.
- Agindua, 2011ko uztailaren 7koa, Herrizaingoko sailburuarena, apustu-esleipendun enpresak apustuak euskarri telematikoko bidez ustia ditzaten joko-sistema eta -elementuak homologatzeari buruzkoa.
- Agindua, 2011ko otsailaren 28koa, Herrizaingoko sailburuarena, 2010eko otsailaren 8ko Agindua aldatzen duena. Horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Bingo-jokoaren modalitateei aplikatu beharreko kentze-ehuneak zehazten dira. (otsailaren 28ko EHAA).
- Agindua, 2010eko otsailaren 8koa, Herrizaingoko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko bingo-jokoaren Araudiko bingo-jokoaren modalitateei aplikatu beharreko kentze-ehuneak zehazten dituena (otsailaren 25eko EHAA, 38. zk.).
- Agindua, 2006ko martxoaren 22koa, Herrizaingo sailburuarena, joko-makinetako prozeduren izapidetze telematikoa arautzen duena. (apirilaren 21eko EHAA, 78. zk.).
- Agindua, 2004ko urtarrilaren 23koa, Herrizaingo sailburuarena, jokoaren arloko prozedurak telematikoki nola izapidetu arautzen duena. (otsailaren 9ko EHAA, 26. zk.).



Eskumen eta lege esparruari buruzko sarrera labur bat

- Ebazpena, 2004ko urtarrilaren 23koa, Joko eta Ikuskizun zuzendariarena; honen bidez, jokoaren arloko prozeduren izapide telematikoak arautzen dituen Herrizaingo sailburuaren 2004ko urtarrilaren 23ko Aginduak aipatzen dituen ziurtagirien izapideek eta eskakizunek eduki beharreko ezaugarriak zehazten dira (otsailaren 9ko EHAA, 26. zk.).
- Agindua, 2002ko ekainaren 27koa, Herrizaingo sailburuarena, B motako joko-makinen prozedurak telematikoki nola tramitatu arautzen duena. (uztailaren 3ko EHAA, 125. zk.).
- Agindua, 1997ko abenduaren 17koa, Herrizaingo sailburuarena, jolas-makinen eta makina osagarriak baimentzeko jardunbidearen arloan, Euskal Autonomia Erkidegoko jolas-makinen, makina osagarrien eta jokorako bestelako instalazio eta sistemen Araudia garatzen duena. (abenduaren 30eko EHAA, 249. zk.).



3.

**Enpresak eta
establezimenduak**



Enpresak eta establezimenduak

3.1. Enpresak (Eustaten datuak)

Eustaten Jarduera Ekonomikoen Gidazerrendak EAEko ausazko jokoen eta apustuen jardueren sektoreko⁴ enpresen kopuruari buruzko informazioa ematen du. 2020. urtean 449 zeuden. Lurraldeen arabera bereiziz gero, enpresa gehienak Bizkaian daude (243 edo enpresa guztien % 54,1); ondoren, Gipuzkoan (143 edo % 31,8) eta Araban (56 edo gainerako % 12,5a). Gainerakoek egoitza EAetik kanpo dute, eta enpresa pribatuak dira.

Denboran izandako bilakaerari dagokionez, enpresak etenik gabe gehitu dira 2011tik 2017ra arteko aldian; ondoren, nolabaiteko jaitsiera izan da 2017tik 2019a bitartean, eta berriz ere egin du gora 2020an. Lurralde historikoen arabera ehuneko banaketa, aitzitik, nabarmen egonkorra izan da denbora osoan.

3.1 Taula EAEko ausazko jokoen eta apustuen jardueren sektoreko (EJSN-2009 92) enpresen kopurua, sozietate egoitzaren tokiaren arabera, 2011-2020

	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Araba	48	50	49	54	56	52	55	53	54	56
Bizkaia	220	227	238	240	242	243	236	237	242	243
Gipuzkoa	118	128	130	139	144	150	149	143	134	143
EAE, guztira	386	405	417	433	442	445	440	433	430	442
Estatuko gainerako tokietan	2	2	2	1	4	4	5	7	7	7
GUZTIRA (EAE eta Estatuko gainerako tokiak)	388	407	419	434	446	449	445	440	437	449

Iturria: Eustat, Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda.

3.2. Establezimenduak (Eustaten datuak)

EAEko ausazko jokoen eta apustuen sektoreko establezimenduen kopuruari dagokionez, daukagun informazioa kontuan hartuta, EAEn, 2020an, 569 establezimendu operatibo zeuden guztira; erdiak baino gehiago Bizkaian zeuden

⁴ Sektoreko jarduerak EJSN-2009 92 "Ausazko jokoen eta apustuen jarduerak" atalean sartuta daude. EJSNa Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionala da, eta kode bat ematen dio egin daitekeen ekonomia jarduera bakoitzari. EJSN 92 atalaren barruan, ausazko jokoetarako instalazioen ustiapenaz gain (kasinoak, bingoak eta txanpon makinak, besteak beste), jokoarekin lotutako zerbitzuak ematea ere sartzen da, loteriak eta hipikako apustuak, adibidez:

- loteriako txartelen salmenta
- txanpon makinaren ustiapena
- ausazko joko birtualei buruzko Interneteko guneen ustiapena
- apustuen eta antzeko bestelako jardueren artekaritza
- hipikako apustuen agentzien ustiapena
- kasinoaren ustiapena, "kasino flotagarriak" barne



Enpresak eta establezimenduak


(307 edo guztien % 54,0), eta, gero, Gipuzkoan (190 edo guztien % 33,4) eta Araban (72 edo guztien % 12,7). Azken urteetako bilakaerari erreparatuz, 2011tik 2015era establezimenduak etengabe gehitu ziren; horren ondoren, egonkortu egin ziren, eta, gero, nolabaiteko beheraldia egon zen 2016tik 2018ra bitartean, eta hazkunde nabarmena egon da berriz 2018tik 2020ra bitarte. Lurralde historikoen arabera banaketak, berriz, ez du aldaketa nabarmenik izan aztertutako aldiaren.

3.2 Taula EAEko ausazko jokoaren eta apustuen jardueren sektoreko (EJSN 92) establezimenduen kopurua, lurralde historikoak eta EAEko guztizkoa, 2011-2020

	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Araba	62	62	62	65	66	62	64	63	70	72
Bizkaia	256	275	285	295	295	297	296	292	301	307
Gipuzkoa	142	154	160	170	179	178	177	174	176	190
EAE, GUZTIRA	460	491	507	530	540	537	537	529	547	569

Iturria: Eustat, Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda.

3.1 grafikoa Ausazko jokoaren eta apustuen jardueren sektoreko (EJSN 92) establezimenduen kopurua, EAEko guztizkoa, 2011-2020



Iturria: Eustat, Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda.



Enpresak eta establezimenduak

Establezimenduen udalerrien arabera banaketa 2020. urtean zein den begiratu gero, EAEko hiru hiriburuetan dago ausazko jokoen eta apustuen establezimendu gehien: Bilbo (121), Donostia (61) eta Gasteiz (61). Beste udalerri hauetan ere badira establezimendu ugari, 15etik 29ra artean zehazki: Barakaldo, Irun, Basauri, Portugalete, Galdakao eta Getxo. Denboran zeharreko konparazioa eginez gero, ikusiko dugu zerrenda hori, oro har, aski egonkorra izan dela 2011tik aurrera.

3.3 Taula Ausazko jokoen eta apustuen jardueren sektoreko (EJSN 92) bost establezimendu edo gehiago dituzten EAEko udalerri nagusiak, 2011-2020

	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Bilbo	98	110	121	121	119	118	117	116	119	121
Gasteiz	51	51	51	54	55	52	54	52	59	61
Donostia	48	56	63	64	62	59	60	59	61	61
Barakaldo	27	27	27	29	28	27	28	29	28	29
Irun	15	16	13	14	17	17	17	17	15	19
Basauri	10	14	14	16	14	15	15	15	16	16
Portugalete	10	11	12	12	13	13	14	14	15	16
Galdakao	10	11	10	11	11	11	11	12	14	15
Getxo	13	14	13	15	17	16	16	16	16	15
Eibar	7	8	9	9	10	9	10	9	11	13
Santurtzi	13	12	13	13	14	13	11	10	10	11
Arrasate	6	8	7	8	9	10	10	8	9	10
Durango	8	7	6	7	8	8	9	9	11	10
Errenteria	5	5	5	6	7	7	7	7	8	9
Tolosa	5	5	8	7	7	9	8	8	8	8
Oiartzun	5	5	5	5	7	9	8	8	8	7
Sestao	6	6	8	8	8	8	7	6	7	7
Pasaia	5	5	4	4	4	4	3	4	5	6
Azpeitia	2	2	2	2	3	3	3	3	3	5
Gernika-Lumo	3	3	4	4	4	4	4	4	5	5
Leioa	7	7	6	5	5	5	5	5	5	5
EAEko gainerako udalerriak	106	108	106	116	118	120	120	118	114	120
EAE, GUZTIRA	460	491	507	530	540	537	537	529	547	569

Iturria: Eustat, Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda.



3.3. Enpresak eta establezimenduak, tipologiaen arabera

Ausazko jokoen eta apustuen sektoreko EAEko enpresen eta establezimenduen kopurua joko motaren arabera aztertuko dugu atal honetan. Enpresa ikuspegitik, EAEko jokoaren merkatua honako enpresa operadore hauetaz osatuta dago:

- Joko-lokalak dituzten enpresak, hau da, joko aretoak, bingoak, kasinoak eta apustu-lokalak dituzten enpresak.
- Jokoaren enpresa operadoreak, hau da, zenbait makina motaren ustiatze baimenak dituzten pertsona fisikoak edo juridikoak. Zehazki, honako ustiatze baimen hauek daude makinaren tipologiaen arabera:
 - B motako makinak, zeinak azpimota hauetan sailkatzen diren: BH makinak (ostalaritzako lokaletan ezarri ahal diren makinak), BS makinak (joko-aretoetarako makinak) eta, azkenik, BG makinak (bingorako makina bereziak).
 - C (Kasinoko makinak).
 - P (Apustu makinak).
- Bestelako enpresak, hau da, makinak edo interkonexio sistemak egiten, inportatzen eta merkaturatzen dituzten enpresak.

Enpresa batek 10 ustiatze baimen eduki behar ditu gutxienez enpresa operadoretzat hartu ahal izan dadin. Era berean, joko-lokalak dituzten pertsonak haietan paratutako makinak ustiatzeko baimenak ere izan ditzakete.

Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak makinaren enpresa operadoreei buruz dituen datuak aintzat hartuta, enpresa gehienak B motako makinaren multzoan daude (hau da, 247 enpresa; 262 dira guztira), eta C motako makinaren enpresa operadoreak eta apustu makinaren enpresa operadoreak, berriz, 2 eta 3 izan ziren, hurrenez hurren (2020ko datuak). Ildo horretan, EAEn P motako makinaren (apustuak) operadore izateko 3 lizentzia daude. Lehiaketa publiko bidez lortu zuten baimen hori. Haien bilakaera aintzat hartuta, B motako makinaren enpresa operadoreen kopuruak behera egin du pixkanaka 2011z geroztik.

Halaber, 2020an, 17 bingo areto, 2 kasino (Bilbon eta Donostian) eta hipikako apustuak egiteko hipodromo bat (Lasarten) zeuden EAEn. Denboran izandako bilakaerari begiratuz gero, bingoak gutxitu egin dira 2011tik 2018ra bitartean, baina berriz ere gora egin dute 2019tik aurrera; kasinoen eta hipodromoen kopurua egonkorra izan da aldi osoan.



Enpresak eta establezimenduak

3.4 Taula Enpresa kopurua joko tipologiaren arabera, EAE, 2011-2020

	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
B motako makinaren enpresa operadoreak	821	350	453	436	399	309	283	265	257	247
C motako makinaren enpresa operadoreak	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
Apustu makinaren enpresa operadoreak	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3
Kasinoak	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
Hipikako apustuak (enpresak)	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1
Joko aretoen enpresa operadoreak	97	86	80	81	81	85	88	87	88	84

Iturria: Zenbait iturri.

SELAE merkataritza sareak 576 lokal zituen 2019an EAEn; horietatik, 233 oinarizko sarekoak ziren, eta gainerako 343ak, sare osagarrikoak. ONCEko saltzaileen sare propioan, berriz, 689 pertsona/establezimendu zeuden guztira 2019an.

Joko aretoen enpresa operadoreak 84 ziren 2020. urtean, eta 209 joko areto zuzendu zituzten. Apustu-lokalak, urte horretan bertan, 33 ziren, eta apustu-lokal gisa gaitutako 34 joko areto zeuden, halaber. Haien bilakaera aintzat hartuta, joko aretoak eta apustu-lokalak gehitu egin dira, batez ere joko aretoak.

3.5 Taula Establezimendu kopurua joko tipologiaren arabera, EAE, 2011-2020

	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
SELAEren merkataritza sarea										
▪ Oinarizko sarea	232	232	232	231	231	236	233	230	233	e/e
▪ Sare osagarria	335	335	334	330	328	355	344	338	343	e/e
ONCEko saltzaileak	664	628	606	587	562	547	547	710	689	e/e
Bingo aretoak	17	16	16	14	14	14	14	13	15	17
Apustu-lokalak	24	27	29	26	26	28	33	34	34	33
Joko aretoak	149	149	155	162	170	178	206	210	210	209
▪ Apustu-lokal gisa gaitutako joko aretoak	17	20	39	41	42	37	33	34	34	34

e/e: ez dago eskuragarri

Iturria: Zenbait iturri.

Azkenik, eta makinak edo interkonexio sistemak egiten eta merkaturatzen dituzten EAEko enpresei dagokienez, 2019ko uztailean eskura dugun azken informazioaren arabera, 29 fabrikatzaile eta 21 merkaturatzaile zeuden guztira; haietako gehienak (22 fabrikatzaile eta 13 merkaturatzaile), Bizkaian.



3.4. Enpresa ehunari buruzko beste datu batzuk: EAEko elkarteak eta enpresa nagusiak

EAEn ausazko jokoen eta apustuen sektoreko enpresak biltzen dituzten zenbait elkarte daude. Honako hauek zehazki:

- Euskadiko Joko Aretoen Elkarteak
- Euskadiko Bingo Bazkidetuak
- Joko Enpresarien Euskal Federazioa (FVEJ), honako hauek osatua: ASERVI, Bizkaiko Jolasbidezko Enpresarien Elkartearen ordezkari gisa; AGUIMAR, Gipuzkoako enpresarien ordezkari gisa, eta AMRA, Arabako enpresen ordezkari gisa.

Egoitza soziala EAEn duten ausazko jokoen eta apustuen jardueren sektoreko enpresa nagusiak ageri dira, halaber, 3.6 koadroan. Taula horretan ausazko jokoen eta apustuen jardueren sektoreko (EJSN 92) eta horri lotutako beste sektore batzuetako enpresak ageri dira⁵. Enpresa nagusia Euskal Kirol Apostuak SA da, hala enpleguari nola fakturazioari dagokienez. Fakturazioari dagokionez, nabarmenak dira, orobat, honako enpresa hauek: Tele Apostuak Promotora de Juegos y Apuestas SA, Ekasa Apuestas Online SA (RETA BET taldekoa, Euskal Kirol Apostuak SA bezala), Garaipen Victoria Apustuak SL eta, azkenik, Bincano SA⁶.

Gainera, enpresak noiz eratu diren kontuan hartuta, zerrendan nagusi diren enpresak aski berriak direla nabarmendu behar dugu, lehen lau enpresa horiek 2000. urtearen ondoren sortu baitituzte.

Eusko Jaurlaritzak baimendutako onlineko jokoaren hiru enpresa operadoreak, berriz, honako hauek dira:

- Ekasa Apuestas Online (Euskal Kirol Apostuak / Reta)
- Teleapostuak SA (Kirolbet)
- Codere Online SAU (Garaipen)

⁵ Joko makinak merkaturatzen eta egiten dituztenak, batez ere.

⁶ 2018. urteko datuak dira. Txosten hau eguneratzeko orduan ezin izan dugu datu berriagorik lortu.



Enpresak eta establezimenduak

3.6 Taula Egoitza soziala EAEn duten ausazko jokoen eta apustuen jardueren sektoreko (EJSN 92) eta horiei lotutako beste sektore batzuetako enpresa nagusiak, 2018ko datuak (mila eurotan)

Izena	Ustiapenek o diru sarrerak (mila eurotan)	Ekitaldiko emaitza (mila eurotan)	Langile ak	Noiz eratu den	Lurralde historikoa
Euskal Kirol Apostuak SA*	209.478	10.146	150	2.002	Bizkaia
Tele Apostuak Promotora de Juegos y Apuestas SA	171.859	5.410	150	2.004	Gipuzkoa
Ekasa Apuestas Online SA*	56.697	241	3	2.014	Bizkaia
Garaipen Victoria Apustuak SL	24.320	-5.285	25	2.007	Bizkaia
Bincano SA	17.181	1.196	48	1.985	Bizkaia
Naipes Heraclio Fournier SA	16.480	2.344	55	1.993	Araba
Basque Gaming SL**	14.656	1.100	78	2.016	Bizkaia
Recreativos Uribe Costa SL	10.897	479	21	1.994	Bizkaia
Zubingora SL	10.839	524	24	1.983	Gipuzkoa
Automáticos Txomin SA	9.137	2.727	18	1.983	Bizkaia
Gran Casino Nervión SA***	7.170	-652	93	1.995	Bizkaia
Nuevo Gran Casino del Kursaal de San Sebastián SA***	5.274	-345	72	1.978	Gipuzkoa
Comercial Yontxa SA	5.213	886	19	1.986	Bizkaia
Picmatic SA	4.702	974	22	1.984	Bizkaia
Binberri SA	4.275	776	45	1.994	Bizkaia
Delta Coin SL	3.976	561	12	1.991	Bizkaia
Urkotronik SA	3.762	150	22	1.988	Gipuzkoa
Esjalu SA	3.587	23	14	1.993	Bizkaia
Servicios Samovi SL	3.540	170	35	2.011	Araba
Operplay SL	3.396	292	7	1.995	Bizkaia
Goiara 2000 SL	3.385	340	10	1.997	Bizkaia
Hipódromos y Apuestas Hípicas de Euskadi SA	3.370	68	13	2.005	Gipuzkoa
Servicios y Explotaciones Martín SA	3.233	348	6	1.989	Bizkaia
Olakoa SA	2.984	267	8	1.987	Bizkaia
Cadena de Bingos SA	2.895	260	23	1.984	Bizkaia
Electronicos Epron SL	2.831	406	21	1.986	Bizkaia
Gesmak Jokoak SL	2.768	885	8	2.003	Gipuzkoa
Mare-Irun SL	2.610	485	11	1.995	Gipuzkoa
Comercial Txartel SL**	2.530	541	9	1.992	Gipuzkoa
Salón Iruña SL	2.453	990	15	1.999	Gipuzkoa

* RETA BET taldea

** BASQUE GAMING SL taldea

*** LUCKIA taldea

Iturria: Merkataritza Erregistroa; Kontu Ez-bateratuak



4.

**Jokoaren industriaren
kopuru handiak
Euskadin**



Kapitulu honen helburua da EAEko jokoaren industriaren zifra ekonomiko nagusiak aurkeztea. Zehazki EAEko jokoaren industriaren makromagnitude handiei eta enpleguari buruzko datuak, eta, horrez gain, EAEn egindako gastu erantsiari eta ausazko joko eta apustueta irabazitako sariei buruzko informazioa, bai eta jokoaren gaineko zergen bilketari buruzko zifrak ere.

4.1. Jokoaren industriaren makromagnitudeak Euskal Autonomia Erkidegoan

Ausazko jokoen eta apustuen jardueren sektoreko (EJSN-2009 92)⁷ makromagnitude handiei buruzko informazioaren arabera (Eustat), sektore horrek 155.925 mila euroko balio erantsi gordina izan zuen 2017an (azken datuak); EAEko BPGd-aren balioaren % 0,22 inguru, alegia. EAE osorako negozio zifraren zenbateko garbia, berriz, 561.686 mila eurokoa izan zen urte horretan bertan. Halaber, ustiapenaren eta ekitaldiaren emaitza positiboak 47.257 eta 39.930 mila eurokoak izan ziren, hurrenez hurren. Azkenik, sektoreak mozkinen gainean ordaindutako zergen zenbatespena 7.989 mila eurokoa izan zen 2017an.

4.1 Taula Ausazko jokoen eta apustuen jardueren sektoreko (EJSN 92) makromagnitude nagusiak, EAE, 2013-2017

	2013	2014	2015	2016	2017
Balio erantsi gordina, faktoreen kostutan	123.100	141.347	144.975	137.166	155.925
Negozio zifraren zenbateko garbia	408.475	450.185	491.579	530.865	561.686
Ustiapenaren emaitza	19.628	34.959	54.785	48.457	47.257
Mozkinen gaineko zerga	2.401	3.983	5.616	7.491	7.989
Ekitaldiko emaitza	16.345	28.125	47.066	41.151	39.930

Datuak, mila eurotan.

Iturria: Eustat. Zerbitzuen Estatistika

Bestalde, denboran izaniko bilakaerari erreparatuta, 2013-2017ko aldiaren, eskura dugun informazioa aintzat hartuta, gehikuntza positiboa ikus dezakegu, hala balio erantsi gordinaren eta negozio zifraren zenbateko garbiaren bilakaeran, nola ustiapeneko eta ekitaldiko emaitzetan; mozkinen gainean bildutako zergen bilakaera positiboa da, orobat. Nolanahi ere, nabarmendu beharra dago 2016ko ekitaldiaz geroztik beheranzko joera txiki bat dagoela ustiapenaren eta ekitaldiko emaitzei dagokienez.

⁷ 2013-2017ko aldi horretatik gaur egun arteko informaziorik ez dago. 2013. urtea baino lehenagoko datuak ere ez daude eskura.



Jokoaren industriaren kopuru handiak Euskadin

Lurraldeen ikuspegitik, gehienbat Bizkaian biltzen da sektore horren jarduera ekonomikoa; hori horrela, lurralde horri dagozkio balio erantsi gordinaren % 54,2, negozio zifraren zenbateko garbiaren % 62,9 eta sortutako mozkinen gaineko zergen % 59,0. Gipuzkoa, berriz, bigarrena da garrantziari dagokionez (guztizkoaren heren baten partaidetza du gutxi gorabehera, aldeak alde), eta Araba dago azkenik (% 8tik beherako partaidetza du kasu guztietan) (2017ko datua).

4.2 Taula Ausazko jokoan eta apustuen jardueren sektoreko (EJSN 92) makromagnitude nagusiak, lurralde historikoak, 2013-2017


	2013	2014	2015	2016	2017
Araba					
▪ Balio erantsi gordina, faktoreen kostutan	12.096	11.664	13.494	12.640	11.719
▪ Negozio zifraren zenbateko garbia	34.031	39.732	48.946	43.332	41.316
▪ Ustiapenaren emaitza	2.301	4.274	6.143	4.142	4.198
▪ Mozkinen gaineko zerga	295	461	470	628	572
▪ Ekitaldiko emaitza	2.115	3.651	5.647	3.420	3.678
Bizkaia					
▪ Balio erantsi gordina, faktoreen kostutan	69.842	72.691	77.542	75.259	84.583
▪ Negozio zifraren zenbateko garbia	255.142	273.294	304.353	338.312	353.250
▪ Ustiapenaren emaitza	10.200	17.733	26.955	26.194	21.991
▪ Mozkinen gaineko zerga	1.404	2.475	3.221	4.333	4.714
▪ Ekitaldiko emaitza	7.859	13.022	22.045	21.772	17.014
Gipuzkoa					
▪ Balio erantsi gordina, faktoreen kostutan	41.162	56.992	53.939	49.267	59.623
▪ Negozio zifraren zenbateko garbia	119.302	137.159	138.280	149.221	167.120
▪ Ustiapenaren emaitza	7.127	12.952	21.687	18.121	21.068
▪ Mozkinen gaineko zerga	702	1.047	1.925	2.530	2.703
▪ Ekitaldiko emaitza	6.371	11.452	19.374	15.959	19.238

Datuak, mila eurotan.

Iturria: Eustat. Zerbitzuen Estatistika



4.1 grafikoa Ausazko jokoen eta apustuen jardueren sektorearen (EJSN 92) EAEko guztizkotik lurralde historiko bakoitzari zer ehuneko dagokion, 2017



Iturria: Eustat. Zerbitzuen Estatistika

4.2. Jokoaren industriako enplegua

Gizarte Segurantzako afiliatuetatik lortutako informazioak erakusten du ausazko jokoen eta apustuen jardueren sektorean (EJSN 92), 2019an, 1.797 pertsona zeudela afiliatuta EAE osoan. Denboran izandako bilakaerari begiratuta, datuetan ikusten da enplegu afiliatua etenik gabe gutxitu dela 2011tik 2014ra bitartean, eta igo egin dela urte horretaz geroztik. Lurraldeei dagokienez, 2019an, afiliatutako langileen % 56,5 (edo 1.015 pertsona guztira) Bizkaikoak ziren, % 34,0 (611 pertsona) Gipuzkoakoak, eta gainerako % 9,5ak (171 pertsona) Arabakoak.

EAEko afiliazio osoari dagokionez, jokoaren industriarena % 0,18 zen 2019an; ehuneko hori aski antzekoa zen Gipuzkoan (% 0,19) eta Bizkaian (% 0,21), baina nabarmen txikiagoa zen Araban (% 0,11).

4.3 Taula Gizarte Segurantzaren afiliatutako enplegua ausazko jokoen eta apustuen jardueren sektorean, lurralde historikoak eta EAE (EJSN 92), 2011-2019


	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Araba	157	146	138	143	142	139	138	144	171
Bizkaia	971	930	934	861	896	946	1.005	1.035	1.015
Gipuzkoa	473	469	457	472	472	561	604	599	611
EAE, guztira	1.601	1.545	1.529	1.476	1.510	1.646	1.747	1.778	1.797

Iturria: SEPE, probintzietako txostenak, zenbait urte.



Jokoaren industriaren kopuru handiak Euskadin

4.2 grafikoa Gizarte Segurantzaren afiliatutako enplegu osotik ausazko jokoen eta apustuen jardueren sektoreari zer ehuneko dagokion (EJSN 92), lurralde historikoak eta EAE, 2019



Iturria: SEPE, probintzietako txostenak.

Norberaren konturako langileek Araban dute proportziorik handiena guztizko enpleguaren barruan (% 28,1, EAEko batezbestekoaren % 19,1aren aldean). Ehuneko hori nabarmen handiagoa da Bizkaian eta, batez ere, Gipuzkoan dagoena baino (% 20,2 eta % 14,7, hurrenez hurren). Denboran izandako bilakaera alderatuz gero, ia ez dago alderik aztertutako aldian norberaren konturako eta besteren konturako enpleguaren garrantzi erlatiboari dagokionez. Neurri batean Gipuzkoan dago salbuespena arlo horretan, nolabaiteko igoera baitago 2015etik 2017ra bitartean, eta eutsi egin zaio ondoren.



Jokoaren industriaren kopuru handiak Euskadin

4.4 taula Zuzeneko enplegua: ausazko jokoen eta apustuen sektorean Gizarte Segurantzaren afiliatutako langileak (EJSN 92), norberaren/besteren kontura, lurralde historikoak eta EAE, 2013-2018.

	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Norberaren kontura							
▪ Araba	39	43	45	43	40	45	48
▪ Bizkaia	184	186	188	195	203	200	205
▪ Gipuzkoa	93	97	95	92	88	88	90
▪ EAE, guztira	316	326	328	330	331	333	343
Besteren kontura							
▪ Araba	99	100	97	96	98	99	123
▪ Bizkaia	750	675	708	751	802	835	810
▪ Gipuzkoa	364	375	377	469	516	511	521
▪ EAE, guztira	1.213	1.150	1.182	1.316	1.416	1.445	1.454
Guztira							
▪ Araba	138	143	142	139	138	144	171
▪ Bizkaia	934	861	896	946	1.005	1.035	1.015
▪ Gipuzkoa	457	472	472	561	604	599	611
▪ EAE, guztira	1.529	1.476	1.510	1.646	1.747	1.778	1.797

Iturria: SEPE, probintzietako txostenak, zenbait urte.

Enpleguari buruz aurretik emandako informazioak ez du kontuan hartzen joko establezimendu askotan jokoaren jarduerarekin berarekin batera ostalaritzako jarduerak ere izaten dituztela (tabernak, kafetegiak eta beste). Hori horrela, joko enpresek filialak izaten dituzte maiz ostalaritzako negozioaz arduratzeko eta, era horretan, ostalaritzako zatiaren BEZa kendu ahal izateko. Hori dela eta, ostalaritzako negozio filial horietan aritzen diren langileak ez daude jasota ausazko jokoen eta apustuen jardueren sektoreko pertsona afiliatu gisa (EJSN 92).

Era berean, Eustaten informazioaren barruan jarduera nagusitzat ausazko jokoen eta apustuen jardueren sektorea (EJSN 92) duten EAEko establezimenduetako enpleguari buruzko datuak daude, enplegu hori nola sailkatu den alde batera utzita (jokoaren sektoreko enplegu gisa edo beste jardueretako enplegu gisa, ostalaritzakoa adibidez). Hori horrela, eta informazio horren arabera, EAEn jokoaren sektorean 2.431 langile zeuden 2017. urtean (urte horretakoa da dugun azken informazioa).

Horrenbestez, EAEn, EJSN 92 sektorean zuzenean afiliatutako 10 enplegu, sektore horri lotutako beste jarduera batzuetako (ostalaritza, adibidez) beste 4 enplegu daudela iradokitzen dute datu horiek. Proportzio hori ez da aldatzen aztertutako aldi osoan, aldaketa txiki batzuk gorabehera. Lurraldeen ikuspegitik, lurralde historikoetatik Bizkaian pilatzen da enplegu okupatu gehien (1.304



pertsona edo EAEko langile okupatuen % 53,6), eta haren atzetik Gipuzkoan eta Araban (890 eta 237 pertsona edo guztien % 36,6 eta % 9,7, 2017. urtean, hurrenez hurren).

4.5 Taula Ausazko jokoen eta apustuen jardueren sektoreko (EJSN 92) langile okupatuen datuak, EAE, 2013-2017

	2013	2014	2015	2016	2017
Araba	253	257	238	244	237
Bizkaia	1.336	1.290	1.292	1.243	1.304
Gipuzkoa	794	804	829	865	890
EAE	2.383	2.351	2.359	2.352	2.431

Iturria: Eustat. Zerbitzuen Estatistika

4.3. EAEko ausazko jokoetako sarien eta apustuen bolumen erantsia

4.3.1. Datu erantsiak (EAEko estatu mailako onlineko jokoa barnean hartu gabe)

EAEEn apustu, loteria eta ausazko jokoetan jasotako gastuei eta sariei buruzko datuak aurkeztuko ditugu hemen. Kategoria bakoitzean egindako gastuaren eta jasotako sarien arteko ratioa ere aztertuko dugu. Horretarako, SELAeri (Sociedad Estatal de Loterías y Apuestas del Estado SA) eta ONCeri dagokien informazioa hartu dugu, bai eta Lasarte-Donostiako Hipodromoko barneko apustuei dagozkien datuak eta bingoeri, kasinoei, kudeaketa pribatuko kirol apustuei, eta, azkenik, B motako makinetako gastuari buruz dauden datuak ere. Garrantzitsua da nabarmentzea atal honetan azaldutako datuen artean ez dagoela jasota estatu mailako onlineko jokoa, horri buruz lor daitekeen informazioa oso mugatua baita oraingoz autonomia erkidegoei dagokienez⁸. Nolanahi ere, jokoaren guztizko balio erantsiak kalkulatu dira ondorengo epigrafean, EAEko estatu mailako onlineko jokoa kuantifikaziorako lehen hurbilketa bat barne⁹.

Ondorioz, 2019. urtean, EAEko apustu, loteria eta ausazko jokoetako gastu osoa (estatu mailako onlineko jokoa alde batera utzita) 1.705.357.627 eurokoa izan zen. Hori horrela, murrizketa txiki bat egon da 2018ko gastu osoaren aldean, eta eten egin da 2014. urtetik jarraian izan den goranzko joera.

Gastu horren banaketa ausazko joko moten arabera aztertu gero, 2019. urtean, gastu gehien B motako makinei dagokie (641.666.000 euro edo guztizkoaren % 37,6), ondoren SELAeren joko/apustuei (482.367.972 euro edo guztizko gastuaren % 28,3, eta horren barruan Loteria Nazionalea nabarmentzen da: guztizkoaren

⁸ 2.1 atalean adierazi dugun bezala, Gobernu Zentraleko Jokoa Antolatze Zuzendaritza Nagusiaren eskumena da estatu mailako onlineko jokoa.

⁹ Ikus 5.8 atalean, halaber, zenbatespen horren xehetasunak.



% 17,0) eta, azkenik, kudeaketa pribatuko kirol apustuei (376.640.468 euro edo guztizkoaren % 22,1). Beste joko mota batzuetan (bingoak, ONCE eta kasinoak) joko bolumen txikiagoa dago (bingoen % 4,9tik kasinoen % 3,0ra artean).



4.6 Taula Apustu, loteria eta ausazko jokoetako gastua (eurotan), EAE, 2011-2019

	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	Δ%*	Aztertutako aldia
SELAE, guztira	521.000.000	503.697.835	461.594.436	459.604.293	470.168.985	465.699.823	467.762.725	469.721.586	482.367.972	-0,9	2011-2019
• Loteria Nazionalea, SELAE	e/e	287.121.009	262.553.397	263.208.197	269.024.316	271.015.980	275.668.925	279.442.047	289.554.849	0,1	2012-2019
• Loteria Primitiboak, SELAE	e/e	201.271.381	185.973.314	184.903.831	189.716.557	184.296.248	182.600.896	181.688.028	184.514.441	-1,0	2012-2019
• Futboleko apustuak, SELAE	e/e	15.013.027	12.819.718	11.442.066	11.408.627	10.356.551	9.467.550	8.567.335	8.279.052	-5,6	2012-2019
• Quintuple Plus, SELAE	e/e	292.418	248.007	50.199	19.485	31.045	25.354	24.176	19.630	-11,7	2012-2019
Lasarte-Donostiako Hipodromoko barneko apustuak	765.172	488.356	465.466	506.160	356.551	370.174	394.071	414.983	458.260	-5,0	2011-2019
ONCE	60.800.000	59.210.000	55.725.650	54.041.140	51.433.281	51.570.797	51.324.077	69.504.838	70.221.002	1,9	2011-2019
Bingoak	80.800.000	80.100.000	76.100.000	72.300.000	82.300.000	83.866.685	84.142.038	82.800.682	83.320.484	0,4	2011-2019
Kasinoak	61.964.140	54.365.070	49.064.027	48.190.665	57.412.260	44.747.580	55.211.202	53.193.276	51.141.701	-2,2	2011-2019
Kudeaketa pribatuko kirol apustuak	128.422.886	159.773.653	210.008.518	272.412.862	271.829.969	307.642.156	339.626.245	354.862.111	376.640.468	24,2	2011-2019
• Aurrez aurrekoak	128.422.887	159.773.653	185.189.902	193.345.750	191.728.948	203.673.251	218.103.138	208.247.872	222.892.953	9,2	2011-2019
• Online	-	-	24.818.616	79.067.112	80.101.021	103.968.905	121.523.107	146.614.239	153.747.515	86,6	2013-2019
B motako makinak	e/e	e/e	654.583.333	444.583.333	590.000.000	620.833.333	665.000.000	704.167.000	641.666.000	0,2	2013-2017
GUZTIRA	853.752.198	857.634.914	1.507.541.430	1.351.638.453	1.523.501.046	1.574.730.548	1.663.460.357	1.734.664.476	1.705.357.627	% 1,6	2013-2019

e/e: ez dago eskuragarri

2011 eta 2012ko datuak ezin dira gainerako urtekoetako datuekin alderatu, B motako makinei buruzko informaziorik ez baitago.

B motako makinei buruzko datuak aholkulari taldeak kalkulatu ditu Euskal Autonomia Erkidegorako GGRaren zenbatespenak, *Espainiako Jokoaren urtekaria 2018 eta 2020* (CODERE, Madril) txostenean jasotakoak, oinarri hartuta. Horretarako, jokaturako zenbatekoen eta sarien arteko 0,76ko ratioa erabili dugu.


Datuetan ez dago estatu mailako onlineko jokoari buruzko informaziorik.

* Datuak urteko gehikuntza metagarriei buruzkoak dira. Eskura dagoen serieko lehen eta azken datua kontuan hartuta kalkulatu dira.

Iturria: Zenbait iturri.




4.3 grafikoa Apustu, loteria eta ausazko jokoetan EAEen egindako gastu osoaren bilakaera, EAE, 2013-2019 (milioi eurotan)



Iturria: Zenbait iturri.

4.4 grafikoa Guztizko gastuaren pisuaren bilakaera era guztietako apustu, loteria eta ausazko jokoetan, EAE, 2013-2019.



Iturria: Zenbait iturri.



Jokoaren industriaren kopuru handiak Euskadin

Eskura dagoen informazioaren arabera, 2013tik 2019ra arteko aldian (era guztietako jokoetarako konparazio datuak daude urte horietarako), joko motek ez dute joera bera izan; hala, bada, SELAEren jokoetan, B motako makinetan, ONCEn edo kasinoetan izandako gastuak joera egonkorra edo beheranzko joera izan du, eta kudeaketa pribatuko kirol apustuetako gastuak, berriz, goranzko joera izan du. Jokatutako guztizko zenbatekoetan izandako garrantzi erlatiboa oso nabarmen handitu da, halaber, 2013tik 2014ra bitartean (guztizkoaren % 13,9tik % 20,2ra igaro baitzen), baina hazkunde apalagoa izan du ordutik (4.4 grafikoa).

Horrekin batera, kudeaketa pribatuko kirol apustuetako gastuari dagokionez, 2011tik 2019ra bitartean, % 193 igo da gastu hori; hau da, % 24,2 handitu da batez beste urte bakoitzean (igoera hori bereziki nabarmena izan da 2012tik 2014ra bitartean, eta apalagoa orduz geroztik, 4.6 koadroan ikus daitekeen bezala). Are gehiago zehaztuta, azpimarratu behar dugu hazkunde hori bereziki nabaria izan dela onlineko apustuei dagokienez, % 519,5eko gorakada izan baitute 2013tik 2019ra arte; urteko batez besteko igoera % 86,6 izan da (gorakada izugarria izan da, oraingoan ere, 2013tik 2014ra arte, eta apalagoa, berriz, orduz geroztik). Aurrez aurreko apustuen igoera geldiagoa izan da onlineko apustuen aldean, baina hura ere nabaria, halere (% 73,6 2011tik 2019ra bitarte).

Jasotako sarien bolumena hizpide hartuta, berriz, 2019ko ekitaldian 1.237.935.353 eurorenak izan ziren guztira, eta gorantz egin du zenbateko horrek 2014tik aurrera. Sarien bolumenik handienak, berriz, honako hauei dagozkie: B motako makinak (% 39,4), kudeaketa pribatuko kirol apustuak (% 26,3) eta SELAE (% 23,4; hemen loteria primitiboa nabarmentzen da, guztiaren % 13,8 hari dagokio eta) (2019ko datuak).

Denboran izandako bilakaera aztertuta, SELAEk banatutako sarietan nolabaiteko jaitsiera egon da guztira jasotako sarien aldean (guztien % 34,0 ziren 2013an, eta % 23,4 baino ez 2019an); kudeaketa pribatuko kirol apustuak, berriz, 2013an sari guztien % 15,2 ziren, eta 2019an, berriz, % 26,3 (portzentajezko 11,1 puntu gehiago, alegia).



4.7 Taula Apustu, loteria eta ausazko jokoetan jasotako sariak (eurotan), EAE, 2011-2019

	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019
SELAE, guztira	306.000.000	249.486.265	404.950.829	276.561.289	232.395.993	163.026.021	169.083.622	209.633.275	289.818.858
• Loteria Nazionala, SELAE	e/e	161.790.440	308.404.941	152.727.955	136.135.603	113.111.806	73.816.274	112.660.199	170.974.596
• Loteria Primitiboak, SELAE	e/e	79.513.664	88.347.393	115.393.481	89.103.710	45.973.411	90.668.812	92.365.375	116.100.162
• Futboleko apustuak, SELAE	e/e	8.090.428	8.132.808	8.425.701	7.150.856	3.936.590	4.593.386	4.602.762	2.737.842
• Quintuple Plus, SELAE	e/e	91.733	65.687	14.152	5.824	4.214	5.150	4.939	6.258
ONCE	37.400.000	21.200.000	20.628.000	30.521.594	19.048.601	20.408.510	27.821.285	39.391.346	31.086.669
Bingoak	53.120.000	51.262.000	48.706.000	50.115.000	56.620.000	63.475.697	63.706.342	63.276.140	63.736.998
Kasinoak	48.143.865	42.219.661	37.888.686	37.593.219	46.247.038	36.463.703	44.378.980	e/e	40.381.701
Kudeaketa pribatuko kirol apustuak	107.728.121	134.238.641	181.084.490	234.910.351	233.778.431	267.079.104	293.489.052	306.309.092	325.244.967
• Aurrez aurrekoak	107.728.121	134.238.641	158.345.488	162.720.683	161.120.755	171.988.197	183.183.250	174.533.095	187.537.037
• Online	-	-	22.739.002	72.189.688	72.657.677	95.090.906	110.305.803	131.775.997	137.707.930
B motako makinak	e/e	e/e	497.483.333	337.883.333	448.400.000	471.833.333	505.400.000	535.166.920	487.666.160
GUZTIRA	552.391.986	498.406.567	1.190.741.338	967.584.786	1.036.490.063	1.022.286.368	1.103.879.282	1.153.776.773	1.237.935.353

e/e: ez dago eskuragarri

2011 eta 2012ko datuak ezin dira gainerako urtekoetako datuekin alderatu, B motako makinei buruzko informaziorik ez baitago. Gauza bera gertatzen da 2018. urtearekin, kasinoei buruzko informaziorik ez baitago.

B motako makinei buruzko datuak aholkulari taldeak kalkulatu ditu Euskal Autonomia Erkidegorako GGRaren zenbatespenak, *Espainiako Jokoaren urtekaria 2018* (CODERE, Madril) txostenean jasotakoak, oinarri hartuta. Horretarako, jokaturako zenbatekoen eta sarien arteko 0,76ko ratioa erabili dugu.

Datuetan ez dago estatu mailako onlineko jokoari buruzko informaziorik.

Iturria: Zenbait iturri.



Jokoaren industriaren kopuru handiak Euskadin

Apustu, loteria eta ausazko jokoaren gastuen gaineko sarien ratioari dagokionez, dugun informazioaren arabera, 0,69 da oro har; hau da, sarietan 0,69 euro jasotzen dira gastatzen den euro bakoitzeko (2019ko datuak)¹⁰. Kudeaketa pribatuko kirol apustueta (0,86) eta kasinoetan (0,79) dago, hain zuzen ere, sarien eta gastuen arteko ratioak handiena, eta ratioak txikiak, aldiz, ONCERi dagokio (0,44 batez beste). 2011-2019ko aldian, sari/gastu ratioak bilakaera aski egonkorra izan dute kategoria guztietan, SELAERi eta ONCERi dagozkien jokoetan izan ezik, urtetik urterako aldaketa nabariak izan baitituzte. Esate baterako, eta SELAERi dagokionez, arras bestelakoak dira 2013an izandako ratioa (0,88, handiena izan baitzen) eta aztertutako azken-aurreko urtean –2018an– lortutakoa (0,45).

4.8 Taula Sarien eta gastuaren arteko ratioa apustu, loteria eta ausazko jokoetan, EAE, 2011-2019

	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019
SELAE, guztira	0,59	0,50	0,88	0,60	0,49	0,35	0,36	0,45	0,60
• Loteria Nazionala, SELAE	e/e	0,56	1,17	0,58	0,51	0,42	0,27	0,40	0,59
• Loteria Primitiboak, SELAE	e/e	0,40	0,48	0,62	0,47	0,25	0,50	0,51	0,63
• Futboleko apustuak, SELAE	e/e	0,54	0,63	0,74	0,63	0,38	0,49	0,54	0,33
• Quíntuple Plus, SELAE	e/e	0,31	0,26	0,28	0,30	0,14	0,20	0,20	0,32
ONCE	0,62	0,36	0,37	0,56	0,37	0,40	0,54	0,57	0,44
Bingoak	0,66	0,64	0,64	0,69	0,69	0,76	0,76	0,76	0,76
Kasinoak	0,78	0,78	0,77	0,78	0,81	0,81	0,80	e/e	0,79
Kudeaketa pribatuko kirol apustuak	0,84	0,84	0,86	0,86	0,86	0,87	0,86	0,86	0,86
B motako makinak	0,76	0,76	0,76	0,76	0,76	0,76	0,76	0,76	0,76
GUZTIRA	0,65	0,58	0,79	0,72	0,68	0,65	0,66	0,61	0,69

B motako makinei dagokienez, aholkulari taldeak denboran zeharreko 0,76ko ratio iraunkorra zenbatetsi du eskuratutako sarien eta jokatutako zenbatekoen artean. Gainerako ratioak zifra errealei dagozkie.

e/e: ez dago eskuragarri


Datuetan ez dago estatu mailako onlineko jokoari buruzko informaziorik.

Iturria: Zenbait iturri.

¹⁰ Ratio orokor hori kalkulatzeko orduan ez da kontuan hartu B motako makinei dagokien ratioa; ratio hori 0,76 balioa eman zaio beti sariei eta jokatutako zenbatekoen dagozkien datuak zenbatetsi ahal izateko (ikus B motako makinei buruzko atala).



4.5 grafikoa Sarien eta gastuaren arteko ratioa apustu, loteria eta ausazko jokoetan, EAE, 2019



B motako makinei dagokienez, aholkulari taldeak denboran zeharreko 0,76ko ratio iraunkorra zenbatetsi du eskuratutako sarien eta jokatutako zenbatekoen artean. Gainerako ratioak zifra errealei dagozkie.

Datuetan ez dago estatu mailako onlineko jokoari buruzko informaziorik.

Iturria: Zenbait iturri.

Azkenik, jokatutako zenbatekoak eta lortutako sariak uztartzeak aukera ematen du “gastu errealar” buruzko informazio zehatza lortzeko; hots, jendeak jokatutako zenbateko erreala, jokatutako zenbatekoen eta lortutako sarien arteko aldea, alegia. Eskura ditugun datuen arabera, EAEko herritarrek jokatutako zenbateko erreala, 2019an, 458.662.434 eurokoa izan zen guztira; zenbateko horrek goranzko joera izan zuen 2017ra arte, eta beheranzkoa, aldiz, orduz geroztik. Gastu erreal handiena gehienbat SELAEren loterietan biltzen da (192.549.114 euro edo guttizkoaren % 41,0), eta haren atzetik, B motako makinetan (154.000.000 euro edo % 32,8), kudeaketa pribatuko kirol apustuetan (53.395.501 euro edo % 11,4) eta ONCEn (39.134.333 euro edo guttizkoaren % 8,3). Horri dagokionez, Loteria Nazionalaren gastua nabarmentzen da, hari baitagokio gastu erreal osoaren % 25,3 (2019ko datuak).



4.9 taula Gastu erreala (jokatutako zenbatekoen eta lortutako sarien arteko aldea) apustu, loteria eta ausazko jokoetan (eurotan), EAE, 2011-2019

	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	Δ%*	Aztertutako aldia
SELAE, guztira	215.000.000	254.211.570	56.643.607	183.043.003	237.772.992	302.673.802	298.679.102	260.088.311	192.549.114	-1,3	2011-2019
• Loteria Nazionalea, SELAE	e/e	125.330.569	-45.851.544	110.480.243	132.888.714	157.904.174	201.852.652	166.781.848	118.580.253	-0,8	2012-2019
• Loteria Primitiboak, SELAE	e/e	121.757.717	97.625.921	69.510.349	100.612.847	138.322.836	91.932.084	89.322.653	68.414.279	-6,3	2012-2019
• Futboleko apustuak, SELAE	e/e	6.922.599	4.686.909	3.016.365	4.257.770	6.419.960	4.874.164	3.964.573	5.541.210	-2,9	2012-2019
• Quíntuple Plus, SELAE	e/e	200.685	182.320	36.048	13.661	26.831	20.202	19.237	13.372	-13,3	2012-2019
ONCE	23.400.000	38.010.000	35.097.650	23.519.546	32.384.680	31.162.287	23.502.792	30.113.492	39.134.333	8,4	2011-2019
Bingoak	27.680.000	28.838.000	27.394.000	22.185.000	25.680.000	20.390.988	20.435.696	19.524.542	19.583.486	-3,7	2011-2019
Kasinoak	13.820.275	12.145.409	11.175.341	10.597.446	11.165.222	8.283.877	10.832.222	3.776.507	10.760.000	-3,6	2011-2019
Kudeaketa pribatuko kirol apustuak	20.694.765	25.535.012	28.924.028	37.502.511	38.051.538	40.563.052	46.137.192	48.553.019	53.395.501	19,8	2011-2019
B motako makinak	e/e	e/e	157.100.000	106.700.000	141.600.000	149.000.000	159.600.000	169.000.000	154.000.000	-0,3	2013-2017
GUZTIRA	300.595.040	358.739.991	316.334.626	383.547.507	486.654.432	552.074.006	559.187.005	527.279.364	458.662.434	6,6	2013-2017

e/e: ez dago eskuragarri

Ez daude jasota Lasarte-Donostiako hipodromoko apustuei dagozkien datuak.

2011 eta 2012ko datuak ezin dira gainerako urtekoetako datuekin alderatu, B motako makinei buruzko informaziorik ez baitago. Gauza bera gertatzen da 2018. urterako, kasinoen datuetan urte horretan ez baitago C motako makinetako gastu errealarik buruzko informaziorik.


Datuetan ez dago estatu mailako onlineko jokoari buruzko informaziorik.

* Datuak urteko gehikuntza metagarriari buruzkoak dira. Eskura dagoen serieko lehen eta azken datua kontuan hartuta kalkulatu dira.

Iturria: Zenbait iturri.



4.6 grafikoa Gastu errealairen bilakaera (jokatutako zenbatekoen eta lortutako sarien arteko aldea) apustu, loteria eta ausazko jokoetan, EAE, 2013-2019 (milioi eurotan)




Datuetan ez dago estatu mailako onlineko jokoari buruzko informaziorik.

2018ko guztizkoan kasinoetako mahaietako gastu errealaire buruzko informazioa dago, baina ez C motako makinetak gastu errealaire buruzkorik.

Iturria: Zenbait iturri.

4.7 grafikoa Gastu errealairen (jokatutako zenbatekoen eta lortutako sarien arteko aldea) pisuaren bilakaera apustu, loteria eta ausazko jokoetan, EAE, 2013-2019



Datuetan ez dago estatu mailako onlineko jokoari buruzko informaziorik.

Kasinoetako 2018ko datuetan mahaietako gastu errealaire buruzko informazioa dago, baina ez C motako makinetak jokatutako buruzkorik.

Iturria: Zenbait iturri.



4.3.2. Datu erantsiak (EAEko estatu mailako onlineko jokoak barnean hartuta)

Azken urteotan gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari da onlineko jokoak, horregatik, gastu osoaren eta gastu erreala guztizko zifren estimazioa aurkeztu nahi dugu, eta horren barruan EAEko estatu mailako onlineko jokoaren balioari buruzko hurbilketa bat jasotzea¹¹. Era horretan, eta zenbatetsitako datuen arabera, apustu, loteria eta ausazko jokoetan, 2019. urtean (urte horretako datuak dira ditugun azkenak), 2.467.779.227 eurokoa izan zen EAEko gastu osoa; era horretako gastuak ausazko jokoetan zer banaketa duen aztertuz gero, 2019an, estatuko onlineko jokoari dagokio haren zati handiena (762.421.600 euro edo guztiaren % 30,9), eta, ondoren, B motako makinei (641.666.000 euro edo guztiaren % 26,0), SELAEren joko/apustuei (482.367.972 euro edo guztiaren % 19,5) eta, azkenik, kudeaketa pribatuko kirol apustuei (376.640.468 euro edo guztiaren % 15,3). Beste joko mota batzuek (bingoak eta ONCE) joko bolumen txikiagoa izan dute (% 3,4 eta % 2,1, hurrenez hurren).

4.10 taula Gastu osoa eta gastu erreala apustu, loteria eta ausazko jokoetan (eurotan), estatuko onlineko jokoak barnean hartuta, EAE, 2019

	Gastu osoa		Gastu erreala	
	Euro	%	Euro	%
SELAE, guztira	482.367.972	19,5	192.549.114	38,5
• Loteria Nazionala, SELAE	289.554.849	11,7	118.580.253	23,7
• Loteria Primitiboak, SELAE	184.514.441	7,5	68.414.279	13,7
• Futboleko apustuak, SELAE	8.279.052	0,3	5.541.210	1,1
• Quintuple Plus, SELAE	19.630	0,0	13.372	0,0
ONCE	70.221.002	2,8	39.134.333	7,8
Bingoak	83.320.484	3,4	19.583.486	3,9
Kasinoak	51.141.701	2,1	10.760.000	2,2
Kudeaketa pribatuko kirol apustuak	376.640.468	15,3	53.395.501	10,7
B motako makinak	641.666.000	26,0	154.000.000	30,8
Estatuko onlineko jokoak (*)	762.421.600	30,9	30.378.717	6,1
GUZTIRA	2.467.779.227	100,0	499.801.151	100,0

Ez daude jasota Lasarte-Donostiako hipodromoko apustuei dagozkien datuak, ezta kasinoetakoak ere.

(*) 2019. urteko estatuko onlineko jokoaren bolumena hartu da erreferentziatzat datuak zenbateteko.


Iturria: Zenbait iturri.

¹¹ Estatuko onlineko jokoak kalkulatzeko, EAEk estatuko guztizkoan % 4,06ko partaidetza ehunekoa duela onduzotatu da (azterlan honen 5.8 atalean eskuratu da datu hori). Estatu mailako onlineko jokoaren 2019ko datu orokorrekin aplikatu zaie ehunekoa hori. Datuak Espainiako Gobernuaren Jokoaren Zuzendaritza Nagusiak ematen ditu.



“Gastu errealari” buruzko datuak kontuan hartuta (hau da, jendeak jokaturako zenbateko erreala, alegia, jokaturako zenbatekoen eta lortutako sarien arteko aldea), EAEko herritarrek jokaturako zenbateko erreala, 2019an, 499.801.151 eurokoa izan zen. Gastu erreala gehienbat SELAEn loterietan biltzen da (192.549.114 euro edo guztizkoaren %38,5), eta haren atzetik, B motako makinetan (154.000.000 euro edo %30,8), kudeaketa pribatuko kirol apustuak (53.395.501 euro edo %10,7) eta ONCEn (39.134.333 euro edo guztizkoaren %7,8). Estatuko onlineko jokoaren gastu erreala, berriz, 30.378.717 eurokoa izan da; hau da, 2019an jokaturako zenbateko erreal guztiaren %6,1.

4.8 grafikoa Gastu osoaren eta gastu errealaren (jokaturako zenbatekoen eta lortutako sarien arteko aldea) pisua apustu, loteria eta ausazko jokoetan, EAE, 2019



Ez daude jasota Lasarte-Donostiako hipodromoko apustuei dagozkien datuak, ezta kasinoetako gastu errealaren datuak ere.

Iturria: Zenbait iturri.



4.4. Jokoak eragindako zerga bilketa

Azkenik, EAEko ausazko jokoen eta apustuen jardueren sektoreak sortutako zerga eta administrazio bilketari buruzko datuak aurkeztuko ditugu. Alde batetik, jokoaren sektorearen berezko zerga batzuk daudela adierazi behar dugu. Horri dagokionez, honako zerga hauek daude:

- Tributu itunduak (foru ogasunek biltzen dituzte):
 - Jokoaren Jardueren gaineko Zerga (Ekonomia Itunaren 36. artikulua). Foru arauak.
 - Jokoaren gaineko beste tributu batzuk (Ekonomia Itunaren 37. artikulua). Jokoaren gaineko tributuen foru arauak.
- Tributu ez-itunduak (SELAetik etorritako diru sarrerak, Ekonomia Itunaren hamabigarren xedapen iragankorra).
- Autonomia erkidegoko zergak: Bingo Jokoaren gaineko zergari eta txanpon makinen errekaruari buruzkoa (6/1992 Legea).
- Jokoarekin lotutako zerbitzuak emateagatik ordaindu beharreko tasak.
- Jokoaren jarduerari lotutako tributuen bidezko beste diru sarrera batzuk:

Dugun informazioa kontuan hartuta, 2018an (urte horretakoak dira ditugun azken datu konparagarriak¹²) jokoaren sektorearen berezko zergei lotutako zerga bilketa 57.330.129 eurokoa izan zen; 2017an baino % 3,4 gehiago, alegia. Horri lotuta, kutxa publikoei ekarpen handien egiten dien tributua edo zerga makinei eta aparatu automatikoei aplikatutako tributu itundua da (diru bilketa osoaren % 60,0). Nabarmendu behar dugu, halaber, bingoaren tributu bidezko bilketak pixkanaka beherantz egin duela; hala, guztizkoaren % 24,1 izatetik (2011) % 8,7 izatera igaro da (2018). Beherakada hori 2014ko azaroan e-plus bingoaren araudia onestearen ondorioa izan da batez ere.

¹² Txosten hau eguneratzeko prozesuaren barruan datu berriagoak lortzen saiatu gara, baina tributu itunduei dagokienak baino ez ditugu eskuratu. Ezinezkoa izan da, aitzitik, tributu ez-itunduei eta autonomikoei buruzko informazioa lortzea.



4.11 taula Euskal Autonomia Erkidegoko jokoaren gaineko zergen banakapena. Lortutako zerga bilketa erreala (eurotan), kutxaren irizpidea, autonomia erkidegoko zergak izan ezik (aitortutako eskubideak) (2011-2020)

	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Tributu itunduak										
• Jokoaren jardueren gaineko zerga	-	-	-	7.674.396	4.099.783	4.943.014	5.956.573	6.613.657	6.227.000	6.852.000
• Bingoa	15.261.620	12.681.925	11.182.867	10.006.241	3.806.621	5.895.963	5.041.267	4.990.053	4.758.000	3.055.000
• Makinak eta aparatu automati-koak	34.814.816	32.833.052	33.316.640	31.850.803	32.175.111	32.613.332	33.355.826	34.408.078	34.775.000	18.775.000
• Kasinoak eta beste batzuk	4.023.551	3.586.674	4.235.183	4.797.925	5.438.497	5.710.099	5.875.004	6.110.492	6.137.000	4.946.000
Tributu ez-itunduak										
• SELAE (diru sarrerak)	1.942.825	1.630.593	1.078.345	1.688.855	1.356.296	1.025.688	1.231.468	1.074.181	e/e	e/e
Autonomia erkidegoko zergak										
• Bingo jokoaren gaineko zerga	3.009.841	2.476.496	2.104.586	1.864.491	97.278	-	-	-	-	-
• Makinen errekgargua	4.181.591	4.048.626	3.974.509	3.835.469	3.843.667	3.917.757	3.991.791	4.133.668	e/e	e/e
GUZTIRA	63.234.244	57.257.366	55.892.130	61.718.180	50.817.253	54.105.853	55.451.929	57.330.129	45.760.000	33.628.000

e/e: ez dago eskuragarri

2018ko eta 2019ko guztizko datuak ez dira konparagarriak, horietan ez baitago jasota tributu ez-itunduei eta autonomia zergei buruzko informazioa.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ogasun Saila



Jokoaren industriaren kopuru handiak Euskadin

Horrez gain, Eusko Jaurlaritzaren Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren administrazio tasen bilketa kontuan hartuta, 2020. urtean 81.308 euro bildu ziren EAEn administrazio tasetan; hau da, 2019an baino % 30,0 gutxiago eta 2018an izandakoaren ia erdia. Gehiena Bizkaian bildu da (44.248 euro edo guztizkoaren % 54,4), eta, ondoren, Gipuzkoan 16.690 euro) eta Araban (5.298 euro). Oro har, administrazio tasen bilketak beherakada izan du 2011tik 2020ra bitartean, lurralde historiko guztietan.

4.12 taula Eusko Jaurlaritzako Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren administrazio tasen (ez zerga tasen) bilketa, 2011-2020 (eurotan)

ZENTRO KUDEATZAILEA	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Araba	28.162	22.704	17.504	20.252	16.014	11.449	9.457	9.329	7.900	5.298
Bizkaia	149.379	114.538	111.524	124.613	103.702	95.323	100.091	94.019	70.008	44.248
Gipuzkoa	79.757	65.687	55.958	48.822	44.256	38.944	30.715	24.447	23.708	16.690
Beste batzuk (*)	4.190	12.023	12.617	19.175	15.981	18.466	36.534	26.868	14.559	15.072
EAE	261.487	214.952	197.603	212.861	179.953	164.182	176.797	154.664	116.175	81.308

* Zerga egoitza EAetik kanpo duten enpresak.

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza.

Ausazko jokoen eta apustuen jardueren sektoreko enpresek beste sektore batzuetan ohikoak diren beste zerga batzuk ordaintzen dituzte. Hala, bada, eta jardueraren mozkinen zergei dagokienez (Sozietateen gaineko Zerga), Eustatek emandako 2017. urteko (azken urtea) informazioaren arabera, 8 milioi euro bildu ziren guztira zerga horien ondorioz; horietatik, % 59,0 Bizkaian bildu ziren; % 33,8, Gipuzkoan, eta gainerako % 7,2a, Araban.

4.13 taula Ausazko jokoen eta apustuen jardueren sektoreko (EJSN 92) mozkinen gaineko zergak, lurralde historikoak eta EAEko guztizkoa (mila eurotan), 2013-2017

	2013	2014	2015	2016	2017
Araba	295	461	470	628	572
Bizkaia	1.404	2.475	3.221	4.333	4.714
Gipuzkoa	702	1.047	1.925	2.530	2.703
EAE, guztira	2.401	3.983	5.616	7.491	7.989

Iturria: Eustat. Zerbitzuen Estatistika.



Jokoaren industriaren kopuru handiak Euskadin

Era horretan, eta BEZari dagokionez, ausazko jokoen eta apustuen jardueren sektorean ezin zaie BEZa jasanarazi jokoaren bezeroei, eta, horregatik, beren jarduerarako beharrezko diren horniduren azken kontsumitzaile bihurtzen dira enpresa horiek. Beste modu batera esanda, jarduera behar bezala egiteko beharrezko izan dituzten ondasunak eta zerbitzuak erosteko eragiketen BEZa ezin diete bezeroei jasanarazi enpresek, eta, horrenbestez, beren kostuetan sartzen dute BEZ hori. Hori horrela, eta ausazko jokoen eta apustuen sektorearen 2017ko “galeren eta irabazien kontuari” buruzko Eustaten informazioan oinarrituta (urte horretakoak dira azken datuak), EAEko jokoaren enpresek beren gain hartutako BEZa 55,8 milioi eurokoa izan da (sektorearen hornidura kostuei BEZaren % 21eko tasa orokorra aplikatuz kalkulatuta).

Enpresek ordaindutako zerga horietaz gain, jokoaren jarduerak bestelako diru sarrera batzuk sortzen dizkie agintaritza publikoei, sektoreko langileek ordaindutako errentaren gaineko zergaren edo gizarte kontribuzioen bitartez. Hala, bada, ausazko jokoen eta apustuen sektorearen “galeren eta irabazien kontuko” langile gastuei buruzko zifra aintzat hartuta (Eustat), 13 milioi euro ordaindu dituzte guztira gizarte kotizazioengatik. Sozietateen gaineko zergari dagokionez, berriz, 8,0 milioi euro inguru bildu dituzte (EAE osoko 2017ko datuak).

Ondorioz, eta ditugun datu guztiak batuz gero, EAEko jokoaren sektorearen zati batek EAEko kutxa publikoei guztira ekarritako diru sarrerak, 2017an, 119,4 milioi eurorenak izan ziren gutxi gorabehera, eta gizarte kotizazioak kontuan hartzen baditugu, 132,4 milioi eurora igotzen da zenbateko hori.



5.

**Informazio zehatza,
jarduerako azpitaldeen
arabera**



Informazio zehatza, jarduerako azpitaldeen arabera

Jokoaren industria askotariko joko eta ausazko jardueraz osatuta dagoela ikusi ahal izan dugu dokumentu honetan. Askotariko joko horiek honako talde hauen barruan sartzen dira:

- SELAEren jokoak
- ONCE
- Kudeaketa pribatuko kirol apustuak
- Kasinoak
- Bingoak
- B motako makinak
- Joko aretoak
- Onlineko jokoak
- Beste batzuk

Ondoren, tipologia bakoitza aztertuko dugu, eta zenbait eremutako informazioa emango dugu (enpresa, lan eta ekonomia arlokoa, batez ere), hartara jarduera talde bakoitzaren ikuspegi zehatzagoa eduki dezagun.

5.1. SELAEren jokoak

SELAE (Sociedad Estatal Loterías y Apuestas del Estado SA) Ogasun eta Administrazio Publikoen Ministerioaren mendeko sozietate publiko bat da. Estatuaren titulartasuneko jokoen kudeaketa eskusiboa dagokio. SELAEk kudeatzen dituen ausazko joko nagusietan honako hauek daude: Loteria Nazionala (Eguberrietako loteria, Erregenetako loteria, asteroko larunbateko zozketak, asteroko osteguneko zozketak), loteria primitiboa (Primitiboa eta El Joker, Bonolotoa, Primitiboaren Sari Nagusia, Euromilioiak eta Milioia (2016tik), Lototurf, futboleko apustuak (Kiniela eta Quinigol eta, 2019tik, Aukeratu 8) eta, azkenik, hipikako apustuak (Quíntuple Plus).

Lehenik eta behin, SELAEren merkataritza sarea honako hauez osatuta dagoela adierazi behar dugu:

- Oinarrizko sarea, hau da, loteria eta apustueterako baino ez diren administrazioak.
- Sare osagarria; honen barruan sartutako establezimenduek SELAEren jokoak eta apustuak merkaturatzen dituzte, baina, egiaz, beste bat da haien dedikazio nagusia (normalean, ostalaritza, estankoak...).

Daukagun informazioaren arabera, 2019an, SELAEren oinarrizko sarean 233 saltegi zeuden, eta 343, berriz, sare osagarriaren barruan. Denboran izandako bilakaerari dagokionez, bi sare horien neurriak ez du aldaketa nabarmenik izan. Esan behar dugu, halaber, sare osagarria handiagoa izan dela beti oinarrizko sarea baino.



5.1 taula SELAEren merkataritza sarea EAEn, 2011-2019

	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019
SELAEren merkataritza sarea									
▪ Oinarrizko sarea	232	232	232	231	231	236	233	230	233
▪ Sare osagarria	335	335	334	330	328	355	344	338	343

Iturria: Ogasun Ministerioa, Jokoa Antolatzeko Zuzendaritza Nagusia, Espainiako jokoaren merkatuari buruzko datuak eta *Espainiako Jokoen urtekaria* 2020, CODERE, Madril.

SELAEren apustu, loteria eta jokoetan EAEn egindako gastu osoa 482.367.972 eurokoa izan zen 2019an; 2018an baino % 2,7 gehiago. SELAEren ausazko jokoetan, gehien Loteria Nazionalean (289.554.849 euro edo SELAEren jokoetako gastu osoaren % 60,0) eta Loteria Primitiboan gastatu da (184.514.441 euro; % 38,3). Horien ondoren dator, baina oso urruti, futboleko apustuetako¹³ eta hipikako apustuetako gastua (8.279.052 euro eta 19.630 euro, hurrenez hurren, edo SELAEren guztiaren % 1,7 eta % 0,004, hurrenez hurren). Horrekin batera, nabarmentzekoa da Eguberrietako Loteria dela EAEn gastu gehien pilatzen duen jokoa, 2019an horrek bildu baitu SELAEren jokoetako gastu osoaren heren bat (156.236.560 euro edo gastu osoaren % 32,4).

Urtetik urterako bilakaerari dagokionez, 2012tik 2020ra arteko aldian, oro har, SELAEren jokoetako gastu osoaren jaitsiera txiki bat ikusten da (% 4,0). Zehaztasun handiagoz begiratuz gero, oso bestelako bilakaera dago, zer joko mota hartzen dugun kontuan: futboleko eta hipikako apustuetako gastua nabarmen gutxitu da (% 44,9 eta % 93,3ko murrizketa, hurrenez hurren), eta Loteria Primitiboko gastuak ere behera egin du, baina ez horren nabarmen (% 8,3), baina kontrako bilakaera du, ordea, Loteria Nazionaleko gastuak, igoera txiki bat izan du eta (% 0,8).

¹³Beste joko bat dago 2019tik, Aukeratu 8 izenekoa; Kinielarekin batera kontabilizatzen da.



Informazio zehatza, jarduerako azpitaldeen arabera

5.2 taula SELAEren apustu, loteria eta ausazko jokoetako guztizko gastuak, moten arabera (eurotan), 2012-2019


	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	Δ%*	Aztertutako aldia
Loteria Nazionala										
▪ Eguberrietakoa	e/e	e/e	138.891.640	142.393.120	144.937.420	147.967.560	151.504.340	156.236.560	12,5	2014-2019
▪ Errege egunekoa	e/e	e/e	38.596.460	40.032.620	39.987.140	41.588.740	40.460.320	44.411.440	15,1	2014-2019
▪ Asteroko larunbateko zozketak	e/e	e/e	76.501.082	76.982.262	76.294.038	76.080.208	77.215.218	78.331.531	2,4	2014-2019
▪ Asteroko osteguneko zozketak	e/e	e/e	9.219.015	9.616.314	9.797.382	10.032.417	10.262.169	10.575.318	14,7	2014-2019
Loteria Nazionaleko guztizko salmentak, SELAE	287.121.009	262.553.397	263.208.197	269.024.316	271.015.980	275.668.925	279.442.047	289.554.849	0,8	2012-2019
Loteria primitiboa										
▪ Primitiboa eta El Joker	e/e	e/e	84.528.407	87.263.270	79.655.019	75.157.379	75.736.683	73.613.530	-12,9	2014-2019
▪ Bonolotoa	e/e	e/e	23.462.894	29.209.075	30.856.836	30.064.571	30.392.241	31.011.022	32,2	2014-2019
▪ Loteria primitiboaren sari nagusia	e/e	e/e	12.453.015	11.849.840	11.481.045	10.729.562	10.444.311	10.043.921	-19,3	2014-2019
▪ Euromilioiak eta Milioia (2016tik)	e/e	e/e	64.306.926	61.288.856	62.188.717	66.534.060	64.965.398	69.713.138	8,4	2014-2019
▪ Lototurf	e/e	e/e	152.589	105.517	114.631	115.324	149.395	132.831	-12,9	2014-2019
Loteria primitiboen guztizko salmentak, SELAE	201.271.381	185.973.314	184.903.831	189.716.557	184.296.248	182.600.896	181.688.028	184.514.441	-8,3	2012-2019
Futboleko apustuak										
▪ Kiniela	e/e	e/e	11.165.816	11.079.776	10.038.686	9.188.976	8.336.770	8.073.077	-27,7	2014-2019
▪ Quinigol	e/e	e/e	276.250	328.851	317.865	278.574	230.565	205.975	-25,4	2014-2019
Futboleko guztizko apustuak, SELAE	15.013.027	12.819.718	11.442.066	11.408.627	10.356.551	9.467.550	8.567.335	8.279.052	-44,9	2012-2019
Hipikako apustuak										
▪ Quintuple Plus, SELAE	292.418	248.007	50.199	19.485	31.045	25.354	24.176	19.630	-93,3	2012-2019
GUZTIZKO SALMENTAK, SELAE	503.697.835	461.594.436	459.604.293	470.168.985	465.699.823	467.762.725	469.721.586	482.367.972	-4,2	2012-2019

e/e.: ez dago eskuragarri; (*) Datuak urteko gehikuntza metagarrii buruzkoak dira. Eskura dagoen serieko lehen eta azken datua kontuan hartuta kalkulatu dira.

Iturria: Ogasun Ministerioa, Jokoa Antolatze Zuzendaritza Nagusia, Espainiako jokoaren merkatuari buruzko datuak eta *Espainiako Jokoaren urtekaria 2020*, CODERE, Madril.



5.1 grafikoa SELAEren apustu, loteria eta ausazko jokoetako gastuaren pisuaren bilakaera, moten arabera, 2012-2019



Iturria: Ogasun Ministerioa, Jokoa Antolatzeko Zuzendaritza Nagusia, Espainiako jokoaren merkatuari buruzko datuak eta *Espainiako Jokoaren urtekaria 2020*, CODERE, Madril.

SELAEk EAEn banatutako sariak 289.818.858 eurorenak izan ziren guztira 2019an (datuak ditugun azken urtea); hau da, aurreko ekitaldian baino % 38,3 gehiago. Joko motaren arabera bereiziz gero, zatirik handiena Loteria Nazionalari dagokio (guztizko sarien % 59,0), eta, ondoren, Loteria Primitiboari (% 40,1). Are gehiago zehaztuta, EAEn asteroko larunbateko zozketek banatu zuten sari bolumen handien 2019an (76.776.894 euro edo guztiaren % 26,5), eta haren atzetik Eguberrietako Loteriak (63.945.880 euro banatu zituen guztira 2019an; % 22,1, alegia).



Informazio zehatza, jarduerako azpitaldeen arabera

5.3 talua SELAEren apustu, loteria eta ausazko jokoetako sariak, moten arabera (eurotan), 2012-2019

	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Loteria Nazionala								
▪ Eguberrietakoa	e/e	e/e	63.394.260	55.974.970	30.255.880	31.613.200	67.214.500	63.945.880
▪ Errege egunekoa	e/e	e/e	20.135.560	30.777.250	48.296.470	11.361.560	14.099.640	23.258.480
▪ Asteroko larunbateko zozketak	e/e	e/e	63.502.401	43.342.421	29.286.623	25.463.303	26.056.222	76.776.894
▪ Asteroko osteguneko zozketak	e/e	e/e	5.695.734	6.040.962	5.272.833	5.378.211	5.289.837	6.993.342
Loteria Nazionaleko guztizko sariak, SELAE	161.790.440	308.404.941	152.727.955	136.135.603	113.111.806	73.816.274	112.660.199	170.974.596
Loteria primitiboa								
▪ Primitiboa eta El Joker	e/e	e/e	79.190.366	39.693.812	21.662.800	29.445.309	36.883.108	37.148.165
▪ Bonolotoa	e/e	e/e	12.603.341	14.397.177	9.580.346	13.816.268	15.956.911	16.047.878
▪ Loteria primitiboaren sari nagusia	e/e	e/e	17.119.149	9.668.492	2.538.261	3.771.552	3.197.982	14.945.841
▪ Euromilioiak eta Milioia (2016tik)	e/e	e/e	6.433.468	25.315.325	12.169.237	43.605.814	36.283.608	47.920.274
▪ Lototurf	e/e	e/e	47.158	28.904	22.768	29.869	43.766	38.004
Loteria primitiboen guztizko sariak, SELAE	79.513.664	88.347.393	115.393.482	89.103.710	45.973.411	90.668.812	92.365.375	116.100.162
Futbola								
▪ Kiniela	e/e	e/e	8.293.016	6.992.265	3.774.480	4.482.630	4.513.390	2.652.179
▪ Quinigol	e/e	e/e	132.686	158.592	162.110	110.756	89.372	85.663
Futboleko guztizko apustuak, SELAE	8.090.428	8.132.808	8.425.701	7.150.856	3.936.590	4.593.386	4.602.762	2.737.842
Hipikako apustuak								
▪ Quintuple Plus, SELAE	91.733	65.687	14.152	5.824	4.214	5.152	4.939	6.258
GUZTIZKO SARIAK, SELAE	249.486.265	404.950.829	276.561.289	232.395.993	163.026.021	169.083.622	209.633.275	289.818.858

e/e: ez dago eskuragarri

Iturria: Ogasun Ministerioa, Jokoa Antolatze Zuzendaritza Nagusia, Espainiako jokoaren merkatuari buruzko datuak eta *Espainiako Jokoaren urtekaria* 2020, CODERE, Madril.



5.2. ONCE

ONCEk (Espainiako Itsuen Erakunde Nazionala) bere loteriak eta ausazko jokoak agente saltzaileen bitartez merkaturatzen ditu. 2019an 689 agente zeuden EAEn, 2018an baino gutxiago, baina 2011tik 2017ra artean egondakoak baino askoz gehiago; izan ere, urte horietan agente saltzaileen kopuruak beheranzko joera izan zuen. Joera hori bat-batean eten zen 2018an, haien kopurua handitu, eta maximo historikora iritsi baitzen (baina behera egin zuen berriz 2019an).

5.4 taula ONCEren merkataritza sarea EAEn, 2011-2019 (agente saltzaileak)

	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019
ONCEko saltzaileak	664	628	606	587	562	547	547	710	689

Iturria: Ogasun Ministerioa, Jokoa Antolatze Zuzendaritza Nagusia, Espainiako jokoaren merkatuari buruzko datuak eta ONCE.

EAEn apustu, loteria eta ausazko jokoetan egindako gastuari dagokionez, 2020an 47.762.556 eurokoa izan zen, hau da, 2011tik izandako zenbatekorik txikiena. Gehiago zehaztuta, bilakaerari begiratu gero, beheranzko joera dago 2011tik 2017ra bitarte, eta bat-bateko igoera nabaria ondoren, 2018tik 2019ra bitartean, bai eta beste jaitziera nabarmen bat 2020an, pandemiaren eta horri lotutako murrizketen ondorioz, segur aski.

Kupoia du, ONCEren guztizko gastuan, proportziorik handiena (guztizko gastuaren % 68,0, 2020ko datua), eta haren atzetik, berehalako loteriak daude (% 22,2); komeni da nabarmentzea, halere, behera egin duela ONCEren produktuen guztizko gastuan kupoia duen pisuak.

5.5 Taula ONCEren apustu, loteria eta ausazko jokoetako gastuak, moten arabera (eurotan), EAE, 2011-2020


	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	Δ%*
Kupoia	50.400.000	47.983.000	45.487.000	44.499.802	41.352.483	39.699.507	38.485.714	50.075.977	49.773.977	32.470.342	-4,0
ONCEren berehalakoa	8.300.000	8.350.000	7.191.650	6.479.570	6.859.218	7.889.235	8.592.526	13.084.338	14.117.517	10.616.239	3,1
ONCEren joko aktiboak	2.100.000	2.877.000	3.047.000	3.061.768	3.221.580	3.982.056	4.245.838	6.344.523	6.329.507	4.675.974	13,6
ONCE, GUZTIRA	60.900.000	59.210.000	55.725.650	54.041.140	51.433.281	51.570.797	51.324.077	69.504.838	70.221.002	47.762.556	-2,4

* Datuak 2011-2020ko aldiaren urteko gehikuntza metagarri buruzkoak dira.

Iturria: Ogasun Ministerioa, Jokoa Antolatze Zuzendaritza Nagusia, Espainiako jokoaren merkatuari buruzko datuak eta ONCE.



5.2 grafikoa ONCEren apustu, loteria eta ausazko jokoetako gastuen pisu erlatiboaren bilakaera, moten arabera, 2011-2020



Iturria: Ogasun Ministerioa, Jokoa Antolatze Zuzendaritza Nagusia, Espainiako jokoaren merkatuari buruzko datuak eta ONCE.

Horrekin batera, 2020. urtean, sarietara 14.915.122 euro bideratu zituen ONCEk EAEn, 2019an banatutakoaren erdia baino gutxiago; beraz, eten egin da 2015ean hasitako goranzko joera, COVID-19a dela-eta aurreko izandako ezohiko egoeraren ondorioz ziur aski. Sari gehienak kupoiari dagozkio, eta haren atzetik, alde txikiarekin, berehalako loteriak daude (7.862.738 euro edo guztien % 52,7, 2020ko datuetan).

5.6 taula ONCEren apustu, loteria eta ausazko jokoetako sariak, moten arabera (eurotan), EAE, 2011-2020

	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Kupoia	32.000.000	15.320.000	14.947.000	25.729.758	14.520.253	13.794.041	20.621.519	31.431.121	22.017.485	7.862.738
ONCEren berehalakoak	4.600.000	4.524.000	4.012.000	3.766.120	3.857.479	4.778.754	5.329.789	5.839.362	6.166.065	5.294.271
ONCEren joko aktiboa	800.000	1.356.000	1.669.000	1.025.716	670.869	1.835.715	1.869.977	2.120.864	2.903.119	1.758.113
ONCE, GUZTIRA	37.400.000	21.200.000	20.628.000	30.521.594	19.048.601	20.408.510	27.821.285	39.391.347	31.086.669	14.915.122

Iturria: Ogasun Ministerioa, Jokoa Antolatze Zuzendaritza Nagusia, Espainiako jokoaren merkatuari buruzko datuak eta ONCE.



5.3. Kudeaketa pribatuko kirol apustuak


kudeaketa pribatuko kirol apustuak funtsezko zati bat dira EAEko ausazko jokoen eta apustuen eskaintzan. Eskura ditugun datuen arabera, EAEn 33 apustu-lokal zeuden 2020. urtean; horietatik, 20 Bizkaian, 10 Gipuzkoan eta 5 Araban zeuden. Bilakaeraren ikuspegitik, lokalak pixkanaka gehituz joan dira 2011tik 2018ra bitarte, eta egonkortu egin da urte horretaz geroztik.

5.7 taula Apustu-lokalen eta apustu-lokal gisa gaitutako joko aretoen kopurua, lurralde historikoak eta EAE, 2011-2020

	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Apustu-lokalak										
▪ Araba	3	3	3	3	3	3	3	4	5	5
▪ Bizkaia	14	17	19	16	15	17	20	20	18	18
▪ Gipuzkoa	7	7	7	7	8	8	10	10	10	10
▪ EAE	24	27	29	26	26	28	33	34	33	33
Apustu-lokal gisa gaitutako joko aretoak										
▪ Araba	2	2	5	8	8	7	8	9	8	8
▪ Bizkaia	10	11	22	24	24	20	17	17	17	17
▪ Gipuzkoa	5	7	12	9	10	10	8	8	9	10
▪ EAE	17	20	39	41	42	37	33	34	34	35

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza.

5.3 grafikoa Apustu-lokalen eta apustu-lokal gisa gaitutako joko aretoen kopuruaren bilakaera, EAE, 2011-2020



Iturria: Eusko Jaurlaritza, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza.

Adierazi behar dugu, halaber, 2020an apustu-lokal gisa gaitutako 35 joko areto zeudela EAEn. Bilakaeraren ikuspegitik, kopuru horrek nolabaiteko murritzeta izan du 2015ean lortutako maximotik (gaitutako 42 joko areto). Lurralde historikoen



Informazio zehatza, jarduerako azpitaldeen arabera

arabera, joko areto horietako gehienak Bizkaian daude (17) –eta haren atzetik, Gipuzkoan (10) eta Araban (8)–, eta lurralde horretan egon da, hain zuzen ere, gaitutako aretoen kopuru jaitsierarik nabariena.

Apustu makinak hiru enpresa operadore daude EAEn; haietako bi Bizkaian daude, eta bestea, Gipuzkoan. Kopuru horretan ez da aldaketarik egon 2011z geroztik.

5.8 taula Apustu makinak enpresa operadoreak, lurralde historikoak eta EAE, 2011-2020

	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Araba	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Bizkaia	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
Gipuzkoa	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1
EAE	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza.

EAEn dauden apustu makinak baimenei dagokienez, ditugun datuen arabera betiere, 2.119 baimen zeuden 2020an, eta horrek berretsi egiten du 2011z geroztik egon den goranzko joera (1.493 baimen 2011n). Lurraldeei dagokienez, baimen gehienak Bizkaian daude (1.044 baimen), eta, ondoren, Gipuzkoan eta Araban (650 eta 425 baimen, hurrenez hurren, 2020ko datuetan); lurralde historiko guztietan dago goranzko joera.




Informazio zehatza, jarduerako azpitaldeen arabera

5.9 koadroa Apustu makinaren baimenak, merkaturatzeko kanalaren arabera, lurralde historikoak eta EAE, 2011-2020

	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Apustu-lokaletako eta gaitutako lokaletako apustu makinaren baimenak										
▪ Araba	24	25	71	76	91	104	114	127	136	139
▪ Bizkaia	66	126	274	293	343	398	419	438	449	450
▪ Gipuzkoa	83	73	178	157	176	210	232	249	247	247
▪ EAE	173	224	523	526	610	712	765	814	832	836
Apustu makinaren baimenak ostalaritzan eta beste toki batzuetan										
▪ Araba	223	291	272	251	248	271	256	267	282	286
▪ Bizkaia	668	726	624	662	644	681	646	619	594	594
▪ Gipuzkoa	429	473	381	365	375	414	422	416	411	403
▪ EAE	1.320	1.490	1.277	1.278	1.267	1.366	1.324	1.302	1.287	1.283
Apustuetako P motako joko makinaren baimenak, guztira										
▪ Araba	247	316	343	327	339	375	370	394	418	425
▪ Bizkaia	734	852	898	955	987	1.079	1.065	1.057	1.043	1.044
▪ Gipuzkoa	512	546	559	522	551	624	654	665	658	650
▪ EAE	1.493	1.714	1.800	1.804	1.877	2.078	2.089	2.116	2.119	2.119

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza.

5.4 grafikoa Apustu makinaren baimenen kopuruaren bilakaera, merkaturatzeko kanalaren arabera, EAE (2011-2020)



Iturria: Eusko Jaurlaritza, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza.

Merkaturatzeko kanalen arabera bereiziz gero, 2020. urtean, 836 izan ziren EAEn apustu-lokaletako eta gaitutako lokaletako apustu makinaren baimenak, eta 1.283, berriz, ostalaritzako eta beste toki batzuetako apustu makinaren baimenak. Izandako bilakaerari begiratuta, interesgarria da azpimarratzea etenik gabe gehitu direla apustu-lokaletan eta gaitutako lokaletan lotutako baimenak (173 baimen zeuden 2011n; 836 2020an), baina ostalaritza eta beste toki batzuetako baimenak,



Informazio zehatza, jarduerako azpitaldeen arabera

berriz, egonkortasun handiagoa izan dute aldi osoan. Lurralde historikoen arabera, Bizkaian dago baimen gehien, hala apustu-lokaletako eta gaitutako lokaletako baimenei dagokienez (450 baimen edo guztien % 53,8), nola ostalaritzako eta beste toki batzuetako baimenei dagokienez (594 baimen edo guztien % 46,3). Azken horietan Araba nabarmentzen da: EAEko ostalaritzako eta beste toki batzuetako apustu makinaren baimen guztien % 22,3 herrialde horretan daude.

Kudeaketa pribatuko kirol apustuei dagokienez, dugun informazioaren arabera, egiaztatu ahal dugu gastu bolumena, kasu horretan, 289.720.319 eurokoa izan zela EAEn 2020. urtean. Urteetan zehar, igoera handia ikusten da aztertutako aldian (2011. urtean 128.422.887 euro, eta 2020. urtean, 289.720.319 euroko gastua; hau da, % 125eko igoera 9 urtean; urtetik urtera, % 14 batez beste). Horrez gain, ikus dezakegu apustuen guztizko bolumenak nolabaiteko jaitsiera izan duela 2020an 2019aren aldean; COVID-19aren eta horri lotutako murrizketen ondorioz gertatu da hori, segur aski.

Xehetasunetan sartuta, era horretako apustuetaiko gastuaren zati handiena, historian zehar, aurrez aurreko kanaletik egin dela ikusten da (222.892.953 euro 2019an; 153.747.515 euro onlineko kanaletik); dena den, etenik gabeko hazkunde neurritsua izan du onlineko kanalak 2013an abiarazi zenetik, eta tokia irabaziz eta aurrez aurreko gastura pixkanaka hurbilduz joan da. Azpimarratzekoa da, orobat, onlineko kanala aurrez aurrekoari nagusitu egin zaiola 2020an, baina oraingoan hori ez da gertatu onlineko gastua handiagoa izan delako, aurrez aurreko gastua murriztu delako baizik, pandemiaren eta horrekin batera paratutako neurrien ondorioz, zalantzarik gabe.



Informazio zehatza, jarduerako azpitaldeen arabera

5.10 koadroa Kudeaketa pribatuko kirol apustuen bolumena, apustu kanal handien arabera, lurralde historikoak eta EAE, 2011-2020 (eurotan)


	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	Δ%*	Aztertutako aldia
Araba												
▪ Aurrez aurrekoak	20.736.451	26.701.580	33.759.975	35.422.186	32.647.778	33.241.652	35.819.660	36.552.006	36.164.636	24.566.849	2,1	2011-2020
▪ Online	-	-	4.065.533	14.166.307	11.662.717	15.212.714	18.076.559	22.717.012	23.086.900	24.379.532	55,5	2013-2020
▪ Araba, guztira	20.736.451	26.701.580	37.825.508	49.588.493	44.310.495	48.454.366	53.896.218	59.269.018	59.251.536	48.946.381	15,1	2011-2020
Bizkaia												
▪ Aurrez aurrekoak	65.867.980	79.811.629	93.319.863	99.332.181	97.399.484	103.921.752	110.302.434	105.340.892	114.759.132	68.289.574	0,4	2011-2020
▪ Online	-	-	12.661.258	38.893.178	42.894.377	49.819.331	57.823.043	70.325.287	74.643.396	72.028.217	52,1	2013-2020
▪ Bizkaia, guztira	65.867.980	79.811.629	105.981.121	138.225.359	140.293.861	153.741.082	168.125.477	175.666.179	189.402.528	140.317.790	12,6	2011-2020
Gipuzkoa												
▪ Aurrez aurrekoak	41.818.456	53.260.444	58.110.063	58.591.382	61.681.687	66.509.847	71.981.044	66.354.974	71.969.185	43.761.906	0,5	2011-2020
▪ Online	-	-	8.091.825	26.007.627	25.543.927	38.936.860	45.623.505	53.571.940	56.017.219	56.694.241	66,7	2013-2020
▪ Gipuzkoa, guztira	41.818.456	53.260.444	66.201.888	84.599.010	87.225.614	105.446.708	117.604.549	119.926.914	127.986.403	100.456.148	15,6	2011-2020
EAE												
▪ Aurrez aurrekoak	128.422.887	159.773.653	185.189.902	193.345.750	191.728.948	203.673.251	218.103.138	208.247.872	222.892.953	136.618.329	0,7	2011-2020
▪ Online	-	-	24.818.616	79.067.112	80.101.021	103.968.905	121.523.107	146.614.239	153.747.515	153.101.990	57,4	2013-2020
▪ EAE, guztira	128.422.887	159.773.653	210.008.518	272.412.862	271.829.969	307.642.156	339.626.245	354.862.111	376.640.468	289.720.319	14,0	2011-2020

* Datuak urteko gehikuntza metagarriei buruzkoak dira. Eskura dagoen serieko lehen eta azken datua kontuan hartuta kalkulatu dira.

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza.



5.5 grafikoa Kudeaketa pribatuko kirol apustuen bolumenaren pisu erlatiboaren bilakaera, kanal handien arabera, 2011-2020



Iturria: Eusko Jaurlaritza, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza.

Lurralde historikoen arabera bereizten badugu, apustuen bolumenik handien Bizkaian pilatzen dela ikus dezakegu (140.317.790 euro edo EAEn 2020an jokaturako diru guztiaren % 48,4), eta haren atzetik, Gipuzkoan eta Araban (100.456.148 eta 48.946.381 euro, edo EAeko guztiaren % 34,7 eta % 16,9, hurrenez hurren). Gainera, Bizkaiaren nagusitasun hori aurrez aurreko zein onlineko kanalean gertatzen da (2020an EAeko guztizkoaren % 50,0 eta % 47,0, hurrenez hurren). Onlineko kanalak apustuak egiteko kanal gisa izandako hedapena orokorra da aztertutako hiru lurralde historikoetan.



Informazio zehatza, jarduerako azpitaldeen arabera

5.11 taula Kudeaketa pribatuko kirol apustuak, kopurua, guztizko bolumena apustuko eta batez besteko bolumena apustu kanal zehatzaren arabera, EAE, 2011-2020 (eurotan)

	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Apustu kopurua (N)										
▪ Apustu-lokala	6.166.224	6.618.914	4.692.962	4.831.976	4.446.722	4.435.479	4.618.390	4.191.053	4.911.824	2.372.814
▪ Gaitutako aretoak	-	-	1.570.475	2.563.537	2.549.350	2.731.218	2.130.563	1.333.715	1.242.556	713.430
▪ Kornerrak	-	-	4.506.558	4.637.878	4.960.432	5.418.580	7.061.110	8.448.616	8.812.949	5.279.983
▪ Ostalaritza	12.549.630	16.756.139	14.130.895	15.147.893	14.761.835	14.333.170	15.048.021	13.864.972	15.133.853	9.238.016
▪ Onlineko kanala	-	-	1.824.180	5.743.404	5.698.701	6.854.150	7.798.044	9.690.057	10.152.073	9.921.205
▪ EAE, guztira	18.715.854	23.375.053	26.725.070	32.924.688	32.417.040	33.772.597	36.656.128	37.528.413	40.253.255	27.525.448
Apustuen bolumena (eurotan)										
▪ Apustu-lokala	53.809.918	51.747.600	38.285.037	34.725.708	33.691.246	36.626.302	40.130.386	36.613.535	43.819.043	21.195.020
▪ Gaitutako aretoak	-	-	16.167.250	24.165.375	23.342.203	25.994.218	20.044.316	13.274.320	12.454.146	7.480.292
▪ Kornerrak	-	-	35.997.958	34.885.703	38.425.456	43.084.494	58.614.252	67.855.969	72.004.027	44.096.170
▪ Ostalaritza	74.612.969	108.026.052	94.739.657	99.568.963	96.270.044	97.968.237	99.314.185	90.504.048	94.615.736	63.846.847
▪ Onlineko kanala	-	-	24.818.616	79.067.112	80.101.021	103.968.905	121.523.107	146.614.239	153.747.515	153.101.990
▪ EAE, guztira	128.422.886	159.773.653	210.008.518	272.412.862	271.829.969	307.642.156	339.626.245	354.862.111	376.640.468	289.720.319
Batez besteko bolumena apustuko (euro/N)										
▪ Apustu-lokala	8,7	7,8	8,2	7,2	7,6	8,3	8,7	8,7	8,9	8,9
▪ Gaitutako aretoak	-	-	10,3	9,4	9,2	9,5	9,4	10,0	10,0	10,5
▪ Kornerrak	-	-	8,0	7,5	7,7	8,0	8,3	8,0	8,2	8,4
▪ Ostalaritza	5,9	6,4	6,7	6,6	6,5	6,8	6,6	6,5	6,3	6,9
▪ Onlineko kanala	-	-	13,6	13,8	14,1	15,2	15,6	15,1	15,1	15,4
▪ EAE, guztira	6,9	6,8	7,9	8,3	8,4	9,1	9,3	9,5	9,4	10,5

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza.

Merkaturatze kanalen azterketa zehatza egiten badugu (apustu-lokalak, gaitutako aretoak, kornerrak, ostalaritza eta onlineko kanala), emaitza interesgarriak lortu ahal ditugu:

- Lehenik eta behin, 2020an EAEn 27.525.448 apustu egin ziren guztira. Kopuru horretan jaitsiera argi bat ikusten da 2011z geroztik etenik gabe egon den goranzko joeraren ondoren, pandemiaren eta horri lotutako murrizketen ondorioz, zalantzarik gabe. Apustu bolumen hori onlineko eta ostalaritzako kanalen bidez egiten da batez ere (9.921.205 eta 9.238.016 apustu, hurrenez hurren; 2020. urteko guztien % 69,6), eta, ondoren, kornerrak (5.279.983 apustu, guztien % 19,2). Beste kanal batzuek, aldiz, apustu-lokalek eta gaitutako aretoek adibidez, garrantzi txikiagoa dute (2.372.814 eta 713.430 apustu, edo guztien % 8,6 eta % 2,6, hurrenez hurren). Denboran izandako bilakaeraren azterketak, berriz, onlineko kanalaren eta kornerraren bidezko apustu kopuruaren igoera nabaria erakusten du gainerako kanalen aldean (apustu-lokalak, gaitutako aretoak eta ostalaritza). Kornerrei dagokienez, halere, 2020an irauli egin da joera, COVID-19aren eta horren eraginaren ondorioz, segur aski.
- Bigarrenik, EAEn 2020an jokaturako zenbateko gehienak (% 52,8) onlineko kanalaren bidez jokatu dira (153.101.990 euro), eta horren atzetik, ostalaritza eta kornerrak ageri dira (63.846.847 eta 44.096.170 euro, edo guztizkoaren % 22,0 eta % 15,2, hurrenez hurren); apustu-lokalek eta gaitutako aretoek, berriz, garrantzi txikiagoa dute (21.195.020 eta 7.480.292 euro, edo guztizkoaren % 7,3 eta % 2,6, hurrenez hurren). Beste behin ere, onlineko kanaleko eta, neurri txikiagoan, kornerraren kanaleko apustuen bolumenak oso hazkunde handia izan du denboran zehar gainerako kanalen aldean.
- Hirugarrenik, EAEn 2020an egindako kudeaketa pribatuko kirol apustuaren batez besteko zenbatekoa 10,5 euro izan zen. Agerian gelditu da, halaber, zenbateko hori etenik gabe igo dela 2011. urteaz geroztik. Era berean, erabilitako kanal moten arabera datuek adierazten dute apustuen batez besteko bolumenak aldatu egiten direla, kanala zein den; hori horrela, 15,4 eta 10,5 euro jokatu dira apustuko onlineko eta gaitutako aretoen kanaletan, hurrenez hurren, baina bolumena apustuko 8,9 eta 8,4 eurokoa da, aldiz, apustu-lokaletan eta kornerratan, hurrenez hurren, eta apustuko 6,9 eurokoa, azkenik, ostalaritzako kanalean (2020ko datuak).
- Azkenik, lurralde historikoen arabera dagoen informazioa aintzat hartuz gero, kirol apustu bakoitzeko batez besteko bolumenik handiena

5.


Jokoaren Euskal Behatokia, 2020

Jokoaren panoramika ekonomiko-enpresariala

Informazio zehatza, jarduerako azpitaldeen arabera


Gipuzkoan dago (12,7 euro apustu bakoitzeko 2020an), eta haren atzetik Araban eta Bizkaian (10,9 euro eta 9,3 euro, hurrenez hurren). Denboran izandako bilakaerari begiratuta, oro har, igoera etengabea ikusten da batez besteko apustuaren bolumenean; aztertutako hiru lurralde historikoetan gertatzen da joera hori.

5.6 grafikoa Batez besteko bolumena apustu bakoitzeko (euro/apustu), kanalaren arabera, 2020



Iturria: Eusko Jaurlaritza, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza.

5.7 grafikoa Kudeaketa pribatuko kirol apustueta batez besteko apustuaren bolumena (euro/apustu), lurralde historikoak eta EAE (2011-2020)



Iturria: Eusko Jaurlaritza, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza.

Halaber, 2020an EAEn 250.278.544 euro banatu zituzten kudeaketa pribatuko kirol apustueta sarietan, Bizkai, Gipuzkoa eta Arabaren artean banatuta (120.819.043, 87.259.209 eta 42.200.293 euro, edo % 48,3, % 34,9 eta % 16,9, hurrenez hurren). Are gehiago zehaztuz gero, 2020an 136.969.600 euro banatu zituzten onlineko kanalaren bitartez, eta 113.308.945 euro aurrez aurreko kanalean. Onlineko kanalaren hazkundera gero eta handiagoa izateak kanal horretatik etorritako sariak ere gero eta gehiago izatea dakar.

5.12 koadroa Kudeaketa pribatuko kirol apustuen bolumena, apustu kanal handien arabera, lurralde historikoak eta EAE, 2011-2020 (eurotan)

	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Araba										
▪ Aurrez aurrekoak	17.581.087	22.646.656	29.084.179	30.114.671	27.292.002	27.547.623	30.229.008	31.012.992	30.190.540	20.349.140
▪ Online	-	-	3.700.696	12.991.673	10.552.113	14.001.450	16.390.556	20.655.436	20.810.688	21.851.152
▪ Araba, guztira	17.581.087	22.646.656	32.784.875	43.106.344	37.844.115	41.549.073	46.619.563	51.668.428	51.001.228	42.200.293
Bizkaia										
▪ Aurrez aurrekoak	55.067.142	66.900.361	79.839.876	83.611.349	82.043.733	87.888.276	92.414.706	87.904.925	96.391.970	56.582.667
▪ Online	-	-	11.647.039	35.372.709	38.981.200	45.388.768	52.359.656	63.155.758	66.844.304	64.236.376
▪ Bizkaia, guztira	55.067.142	66.900.361	91.486.915	118.984.058	121.024.933	133.277.044	144.774.362	151.060.683	163.236.274	120.819.043
Gipuzkoa										
▪ Aurrez aurrekoak	35.079.893	44.691.624	49.421.433	48.994.663	51.785.020	56.552.299	60.539.536	55.615.178	60.954.527	36.377.138
▪ Online	-	-	7.391.267	23.825.306	23.124.364	35.700.688	41.555.592	47.964.803	50.052.938	50.882.071
▪ Gipuzkoa, guztira	35.079.893	44.691.624	56.812.700	72.819.969	74.909.383	92.252.987	102.095.127	103.579.981	111.007.465	87.259.209
EAE										
▪ Aurrez aurrekoak	107.728.121	134.238.641	158.345.488	162.720.683	161.120.755	171.988.197	183.183.250	174.533.095	187.537.037	113.308.945
▪ Online	-	-	22.739.002	72.189.688	72.657.677	95.090.906	110.305.803	131.775.997	137.707.930	136.969.600
▪ EAE, guztira	107.728.121	134.238.641	181.084.490	234.910.371	233.778.431	267.079.104	293.489.052	306.309.092	325.244.967	250.278.544

Iturria: Eusko Jaurlaritz, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza.

Azkenik, eta kudeaketa pribatuko kirol apustuen ikuspegia osatze aldera, komeni da apustuak egin ahal diren EAEko hipodromo bakarrean eginiko apustuei buruzko iruzkin bat egitea, hau da, Lasarte-Donostiako hipodromoaz. Hala, bada, hipodromo horretako barneko apustuetako gastua 458.260 eurokoa izan zen 2019an; 2018an baino % 10,4 handiagoa, alegia. Izan ere, igoerak izan ditu azken lau urteetan, eta zenbatekoa ez da asko aldatu 2013. urteaz geroztik.

5.13 koadroa Lasarte-Donostiako Hipodromoko barneko apustuak, 2011-2019 (eurotan)

	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Apustuak	765.172	488.356	465.466	506.160	356.551	370.174	394.071	414.983	458.260

Iturria: Lasarte-Donostiako hipodromoa.

5.4. Kasinoak

Dugun informazioaren arabera, EAEn bi kasino daude, Bilbon eta Donostian, hain zuzen ere (Bilboko Kasino Handia eta Kursaal Kasinoa, hurrenez hurren).

Bi kasinoetan, 2020an, 18 mahai eta C motako joko makinatarako 123 baimen zeuden. Bi kasino horietan 2.077 lagunentzako tokia zegoen 2020an. Nabarmen handitu da 2019arekin alderatuta (% 70), 1.220 lagunentzako tokia baitzegoen orduan. 2020. urtean, gainera, kasino horietan 149.938 bisitari izan dituzte, 2019an baino nabarmen gutxiago (% 23,7 gutxiago zehazki), COVID-19aren eta horrekin batera ezarritako neurrien ondorioz, segur aski.

5.14 taula EAEko kasinoei buruzko informazioa, 2011-2020

	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Kasino kopurua	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
Mahai kopurua	20	20	21	20	19	19	19	19	14	18
C motako joko makinatarako baimenak	100	90	103	104	124	123	124	124	124	123
Edukiera	975	1.125	1.220	1.125	1.220	1.220	1.220	1.220	1.220	2.077
Bisitariak	188.010	162.453	147.183	147.606	164.934	183.743	176.629	198.042	196.589	149.938

Iturria: Ogasun Ministerioa, Jokoa Antolatze Zuzendaritza Nagusia, Espainiako Joko Merkatuaren datuak; Eusko Jaurlaritza, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza; *Espainiako Jokoaren urtekaria 2020*, CODERE, Madril; eta kasinoen patronalak jakinarazitako datuak.

Are gehiago zehaztuz gero, ikusten da C motako joko makinatarako baimenen % 53,7 Bilboko kasinoan daudela, eta % 46,3, berriz, Donostiako kasinoan. Proportzio hori ez da ia aldatu denboran zehar.

5.15 taula C motako joko makinatarako baimenak (kasinoak), lurralde historikoak eta EAE, 2011-2020

	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Bizkaia	60	45	59	61	70	69	67	67	67	66
Gipuzkoa	40	45	44	43	54	54	57	57	57	57
EAE	100	90	103	104	124	123	124	124	124	123

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza.

Bi kasinoetan jokaturako zenbatekoei dagokienez, ditugun azken datuen arabera, 2019an 51,14 milioi euro jokatu zituzten. Horietatik, % 36,8 (18,8 milioi euro) mahaietan jokaturako zenbatekoei (*drop*) zegokien, eta gainerakoa, (32,3 milioi euro edo % 63,2) C motako makinatan jokaturako zenbatekoei. Bisitari bakoitzak 2019. urtean batez beste 260,1 euro jokatu zituela adierazi behar dugu, orobat.

Jokatutako zenbateko horien osagarri, gainera, bestelako diru sarrerak ere izan zituzten eskupeko eta sarreren bitartez; 2019. urtean 483,7 mila euro eskuratu zituzten haiei esker. Hori horrela, EAEko bi kasino horiek 51,6 milioi euroren diru sarrerak izan zituzten guztira 2019. urtean.

Aurreko urteetan gertatutakoarekin alderatuz gero, interesgarria da zenbait kontu nabarmentzea:

- Lehenik, jokatutako guztizko zenbatekoetan alde handiak daude 2011tik 2019ra bitartean, eta denboran zehar ez da ikusten hazkunde pautara iraunkorrik. Irregularitasun hori, gehienbat, C motako makinetan jokatutako zenbatekoen bilakaeraren ondorioz gertatzen da, nabarmen aldatu baitira aztertutako urteen artean, eta bereziki 2016. urtean.
- Bisitari bakoitzak batez beste jokatutako zenbatekoak, berriz, beheranzko joera erakusten du 2011-2019ko aldian. Hala, 2011n 329,6 euro ziren, eta 2019an, 260,1 euro; beherakada handi samarra egon zen 2016an, eta, 2017an beste igoera bat izan ondoren, beheranzko joera izan du ordutik.
- Azkenik, interesgarria da nabarmentzea eskupekoen ondoriozko diru sarretan izandako jaitsiera, bai eta sarreraren bidezko diru sarretan dauden aldaketa handiak ere.



Informazio zehatza, jarduerako azpitaldeen arabera

5.16 taula Kasinoetan jokaturako zenbatekoak eta beste diru sarrera batzuk (eurotan), EAE, 2011-2019

	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	Δ%**
▪ Mahaietan jokaturako zenbatekoak (<i>Drop</i>) (*)	25.483.745	20.679.500	19.782.527	20.855.750	26.140.080	27.374.210	23.948.122	21.834.636	18.801.426	-2,9
▪ C motako makinetan jokaturako zenbatekoak	36.480.395	33.685.570	29.281.500	27.334.915	31.272.180	17.373.370	31.263.080	31.358.640	32.340.275	-1,3
▪ Kasinoetan jokaturako guztizko zenbatekoa	61.964.140	54.365.070	49.064.027	48.190.665	57.412.260	44.747.580	55.211.202	53.193.276	51.141.701	-1,9
▪ Bisitari bakoitzak jokaturako zenbatekoa (euro/bisitari)	329,6	334,7	333,4	326,5	348,1	243,5	312,6	268,6	260,1	-2,3
▪ Eskupekoak	929.203	741.529	742.073	621.726	583.202	479.463	400.900	390.905	385.457	-6,5
▪ Sarrerak	44.896	49.657	50.694	41.541	56.471	5.141	1.462	e/e	98.293	13,2
▪ Kasinoetako diru sarrerak, guztira	62.938.239	55.156.256	49.856.794	48.853.932	58.051.933	45.232.184	55.613.564	53.584.181	51.625.451	-2,0

e/e: ez dago eskuragarri


(*) *Drop*: mahaietan jokatzeko fitxekin trukaturako zenbatekoa.

** Datuak 2011tik 2017ra arteko urteko gehikuntza metagarriari buruzkoak dira.

2018ko guztizko datuak ez dira konparagarriak, horietan ez baitago jasota sarreren bidezko diru sarrerei buruzko informazioa.

Iturria: Ogasun Ministerioa, Jokoa Antolatze Zuzendaritza Nagusia, Espainiako jokoaren merkatuari buruzko datuak eta *Espainiako Jokoaren urtekaria 2020*, CODERE,

5.8 grafikoa Kasinoan bisitari bakoitzeko jokaturako zenbatekoa (euro/bisitari), EAE (2011-2019)



Iturria: Ogasun Ministerioa, Jokoa Antolatzeko Zuzendaritza Nagusia, Espainiako jokoaren merkatuari buruzko datuak eta *Espainiako Jokoaren urtekaria 2020*, CODERE, Madril.

Sariak, berriz, 2019. urtean 40,4 milioi eurorenak izan ziren; horietatik, 14,7 milioi mahaietan banatu zituzten, eta 25,7 milioi euro C motako makinetan. Denboran zehar izandako bilakaerari dagokionez, sariak jokaturako zenbatekoek bilakaera bera dute; aldaketa handiak daude urteen artean.

5.17 taula Kasinoetako sariak (eurotan), EAE, 2011-2019

	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Mahaietan banatutako sariak (Drop) (*)	18.959.549	15.271.205	14.463.486	15.725.287	21.229.294	22.565.007	19.368.516	18.058.129	14.700.000
C motako makinetan banatutako sariak	29.184.316	26.948.456	23.425.200	21.867.932	25.017.744	13.898.696	25.010.464	e/e	25.681.701
Kasinoetan banatutako sariak, guztira	48.143.865	42.219.661	37.888.686	37.593.219	46.247.038	36.463.703	44.378.980	e/e	40.381.701

e/e: ez dago eskuragarri

(*) Drop: mahaietan jokatzeko fitxekin trukaturako zenbatekoa.

Iturria: Ogasun Ministerioa, Jokoa Antolatzeko Zuzendaritza Nagusia, Espainiako jokoaren merkatuari buruzko datuak eta kasinoek beraiek emandako datuak.

5.5. Bingoak

Epigrafe honetan bingoen jarduerari buruzko magnitude nagusiak aurkeztuko ditugu (kopurua, kartoen salmenta, sariak eta abar).

Horri dagokionez, oroz gain, nabarmendu beharra dago EAEn 2020an 14 bingo zeudela. Kopuru horrek ez du aldaketa nabaririk izan 2014. urteaz geroztik. Gainera, izan diren aldaketa ia guztiak Bizkaia dagozko; lurralde horretan daude bingo gehienak, orobat (guztien % 57,1).

Bingo aretoen edukierari dagokionez, 2020an, 5.232 lagunentzako tokia zegoen EAEko bingoetan; hau da, % 18,1eko igoera egon da 2019aren aldean, Bizkaian (% 23,1) eta Gipuzkoan (% 24,1) izandako gehikuntzaren ondorioz. Azpimarratu behar dugu, orobat, Bizkaian dagoela edukiera handien (guztiaren % 54,0). Era berean, 2020ko datuak 2019an izandakoak baino nabarmen handiagoak badira ere, txikiagoak dira oraindik 2011tik 2014ra bitartean izanikoak baino.

5.18 taula Bingo kopurua, lurralde historikoak eta EAEko guztizkoa, 2011-2020

	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Bingo aretoak										
▪ Araba	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3
▪ Bizkaia	10	10	10	8	8	8	8	7	8	8
▪ Gipuzkoa	4	3	3	3	3	3	3	3	3	3
▪ EAE	17	16	16	14	14	14	14	13	14	14
Bingo aretoetako edukiera										
▪ Araba	1.060	1.160	1.160	1.153	1.153	1.153	1.153	1.153	1.000	1.000
▪ Bizkaia	3.833	3.734	3.734	2.486	2.513	2.342	2.342	2.294	2.294	2.823
▪ Gipuzkoa	1.711	1.242	1.242	1.242	1.175	1.135	1.135	1.135	1.135	1.409
▪ EAE	6.604	6.136	6.136	4.881	4.841	4.630	4.630	4.582	4.429	5.232

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza.

Bingoetako B motako makinak baimenei dagokienez, dugun informazioaren arabera, 2020. urtean 116 baimen zeuden EAEn; hots, aurreko ekitaldian baino % 19,6 gehiago eta 2011ko baimenak ia halako bi. Lurraldeei begiratuta, dugun informazioaren arabera, lurralde historikoen artean Bizkaian dago baimen gehien (60 edo guztien % 51,7), eta, ondoren, Araban eta Gipuzkoan (30 eta 26, edo % 25,9 eta % 22,4, hurrenez hurren). Urtetik urterako bilakaerari dagokionez, azkenik, baimenak gehitu egin dira Bizkaian eta Gipuzkoan, eta bere horretan geratu da Araban.

5.19 taula Bingoetako B mota makinena baimenak, lurralde historikoak eta EAE, 2016-2020

	2016	2017	2018	2019	2020
Araba	30	30	21	23	30
Bizkaia	27	34	56	62	60
Gipuzkoa	7	7	13	12	26
EAE	64	71	90	97	116

B motako makinena baimenei buruzko datuak ez daude makina motaren arabera banakatuta 2016. urtea baino lehen; orduan onetsi zen 120/2016 araudi berria.

Iturria: Eusko Jaurlaritzak, Joko eta Ikusizun Zuzendaritza.

EAEn bingoetako kartoien salmenta ikusten da 5.20 koadroan, motaren arabera (bingo tradizionala edo elektronikoa). Horren arabera, 2019an bingoetan 83.320.484 euro jokatu ziren; hala, bada, % 0,6ko igoera egon zen aurreko ekitaldiarekin alderatuta, eta % 3,1ekoa 2011koarekin konparatuz gero. Xehetasunei begiratuz gero, hazkunde txiki hori bingo elektronikoaren bidez gastua handitu delako gertatu da soilik (% 3,8 azken urtean), baina aurrez aurreko bingoak ez du aldaketarik izan ia; horrexek dauka bolumenik handiena (guztia % 79,2).

5.20 taula Bingoetako kartoien salmenta, motaren arabera, EAEn, 2011-2019 (eurotan)

	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	Δ %*
Bingo tradizionala	80.800.000	69.300.000	58.900.000	54.000.000	63.500.000	68.151.685	68.128.329	66.101.682	65.988.484	-2,0
Bingo elektronikoa	-	10.800.000	17.200.000	18.300.000	18.800.000	15.715.000	16.013.709	16.699.000	17.332.000	7,6
Bingoetan guztira jokaturako zenbatekoa	80.800.000	80.100.000	76.100.000	72.300.000	82.300.000	83.866.685	84.142.038	82.800.682	83.320.484	0,3

* Datuak 2011tik 2019ra arteko urteko gehikuntza metagarriei buruzkoak dira, bingo elektronikoari dagozkion datuak izan ezik (2012-2019 aldikoak dira).

Iturria: Ogasun Ministerioa, Jokoa Antolatze Zuzendaritza Nagusia, Espainiako jokoaren merkatuari buruzko datuak eta *Espainiako Jokoaren urtekaria 2020*, CODERE, Madril.

Azkenik, EAEn bingoetan banatutako sariak 2019an 63.736.998 eurorenak izan ziren; % 0,7ko igoera egon zen aurreko ekitaldiaren aldean. Joko motaren arabera bereizten badugu, bingo elektronikoa da hazi den bakarra, bietatik oraindik pisurik txikiena badu ere (guztia % 23,4 du, eta bingo tradizionalak, berriz, % 76,6).

5.21 taula Bingoaren sari zenbatetsiak, motaren arabera, EAEn, 2011-2019 (eurotan)

	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Bingo tradizionala	53.120.000	44.352.000	37.696.000	34.560.000	40.640.000	50.432.247	50.414.963	48.915.000	48.831.478
Bingo elektronikoa	-	6.910.000	11.010.000	15.555.000	15.980.000	13.043.450	13.291.378	14.361.140	14.905.520
Bingoetako sarien zenbatekoa, guztira	53.120.000	51.262.000	48.706.000	50.115.000	56.620.000	63.475.697	63.706.342	63.276.140	63.736.998

Iturria: Ogasun Ministerioa, Jokoa Antolatzeko Zuzendaritza Nagusia, Espainiako jokoaren merkatuari buruzko datuak eta *Espainiako Jokoaren urtekaria 2020*, CODERE, Madril.

5.6. B motako makinak

B motako makinak dira joko aretoetako joko eskaintzaren oinarritzko euskarria, bai eta eskaintza gehigarri bat ostalaritzaren kasuan, eta joko eskaintza osagarri bat bingoetan. Hori horrela, 2020an, EAEn B motako makinak 247 enpresa operadore zeuden; Bizkaian, 133 enpresa (edo guztien % 53,8); Gipuzkoan, 68 enpresa (guztien % 27,5), eta Araban, 46 enpresa (% 18,6).

Bilakaeraren ikuspegitik, arrazionalizazio prozesu bat gertatu da enpresa operadoreen kopuruari dagokionez, eta, horren ondorioz, etengabe gutxitu dira 2011tik (821 enpresa guztira) 2020. urtera bitartean (247 enpresa). Interesgarria da adieraztea, aldaketa horiek gorabehera, lurralde historiko bakoitzaren pisu erlatiboa iraunkorra izan dela denboran zehar: gehienez ere, Bizkaiak eta Arabak jaitsiera txiki bat baino ez dute izan, Gipuzkoaren aldean.

5.22 taula B motako makinak enpresa operadoreak, lurralde historikoak eta EAE, 2011-2020

	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Araba	132	67	66	59	66	56	52	51	49	46
Bizkaia	492	189	268	257	213	167	155	145	138	133
Gipuzkoa	197	94	119	120	120	86	76	69	70	68
EAE	821	350	453	436	399	309	283	265	257	247

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza.

B motako makinen baimenei dagokienez, 2020an EAEn 10.673 baimen zeuden guztira, honela banatuta: 5.930 Bizkaian, 3.061 Gipuzkoan, eta 1.682 Araban (guztien % 55,6, % 28,7 eta % 15,8, hurrenez hurren)¹⁴.

Adierazi behar dugu, orobat, baimen horietako gehienak ostalaritzako joko makinei dagozkiela, hau da, BH baimenak, terminologia ofiziala erabilita (7.908 baimen, guztien % 74,1), eta, ondoren, joko aretoetako joko makinetarako baimenak daude, BS baimenak alegia (2.649 baimen, guztien % 24,8). Azkenik, bingoetako makinei dagozkien baimenak daude, BG baimenak alegia (116 baimen, guztien % 1,1).

5.23 taula B motako makinen baimenak, haien kokalekuaren arabera, lurralde historikoak eta EAE, 2011-2020

	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Ostalaritzako joko makinen baimenak (BH)										
▪ Araba	-	-	-	-	-	1.383	1.329	1.277	1.242	1.252
▪ Bizkaia	-	-	-	-	-	5.425	4.906	4.600	4.499	4.444
▪ Gipuzkoa	-	-	-	-	-	2.512	2.386	2.273	2.224	2.212
▪ EAE	-	-	-	-	-	9.320	8.621	8.150	7.965	7.908
Joko aretoetako joko makinen baimenak (BS)										
▪ Araba	-	-	-	-	-	333	370	389	386	400
▪ Bizkaia	-	-	-	-	-	1.328	1.392	1.398	1.436	1.426
▪ Gipuzkoa	-	-	-	-	-	757	773	817	819	823
▪ EAE	-	-	-	-	-	2.418	2.535	2.604	2.641	2.649
Bingoko joko makinen baimenak (BG)										
▪ Araba	-	-	-	-	-	30	30	21	23	30
▪ Bizkaia	-	-	-	-	-	27	34	56	62	60
▪ Gipuzkoa	-	-	-	-	-	7	7	13	12	26
▪ EAE	-	-	-	-	-	64	71	90	97	116
B motako joko makinen baimenak, guztira										
▪ Araba	1.513	1.667	1.629	1.600	1.806	1.746	1.729	1.687	1.651	1.682
▪ Bizkaia	6.093	6.726	6.594	6.324	6.844	6.780	6.332	6.054	5.997	5.930
▪ Gipuzkoa	3.018	3.272	3.198	3.136	3.344	3.276	3.166	3.103	3.055	3.061
▪ EAE	10.624	11.665	11.421	11.060	11.994	11.802	11.227	10.844	10.703	10.673


B motako makinen baimenei buruzko datuak ez daude makina motaren arabera banakatuta 2016. urtea baino lehen, orduan onetsi baitzen 120/2016 araudi berria.

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza.

¹⁴ Baimendutako B motako makinen kopuru horrek ez du zertan ezinbestean bat etorri jardunean ari diren makinen kopuruarekin; izan ere, litekeena da guztiak jardunean ez egotea aldi baterako egoeraren baten ondorioz (aldi baterako bajan, biltegian...).

B motako makinaren baimen kopuruak denboran izandako bilakaerari begiratuta, baimen gehien 2015. urtean eman zuten (11.994 baimen), eta orduz geroztik beheranzko joera izan du baimen kopuruak, lehen esandako 10.673 baimenetara iritsi arte. Lurralde historikoetako baimenen kopuru erlatiboa aski iraunkor atxiki da aztertutako aldi horretan.

5.9 grafikoa B motako makinaren baimen kopuruaren bilakaera, EAE, 2011-2020



Baimen moten araberrako bereizketa (BH, BS edo BG) 2016az geroztik baino ez dago.

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza.

Baimen moten araberrako bereizketan (BH, BS edo BG) –2016. urteaz geroztik– ikusten da BH motako makinaren baimenak etengabe gutxituz joan direla (hau da, 2016an 9.320 eman ziren; 2020an, berriz, 7.908), eta, aldi berean, BS eta BG makinaren baimenak gehitu egin direla (lehenak 2.418tik 2.649ra igaro ziren, eta 64tik 116ra bigarrenak). Joera hori lurralde historiko guztietan gertatzen dela ikus dezakegu, halaber.

B motako makina horien bitartez jokaturako diruari dagokionez, lehenik eta behin, adierazi behar dugu horri buruzko estatistika “ofizialik” ez dagoela EAEn. Badaude, ordea, errealitate horri buruzko hurbilketa partzial batzuk: Karlos III.a Unibertsitateak egindako *Espainiako Jokoaren urtekaria 2018 eta 2020* txostenak, esaterako, B motako makina guztiek sortutako GGRaren¹⁵ gaineko zenbait zenbatespen ematen ditu, hala estatu mailan nola autonomia-erkidegoen arabera.

¹⁵ GGR edo Gross Gaming Revenue; hots, jokalariek jokaturako zenbateko osoaren eta jasotako sarien arteko aldea. Enpresa operadorearen diru sarrera gordinak, alegia.

5.24 taula Jokotutako zenbatekoak, sariak eta GGRa EAEko B motako makinetan, 2013-2019 (eurotan)

	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	Δ%*
Jokatutako zenbatekoak	654.583.333	444.583.333	590.000.000	620.833.333	665.000.000	704.167.000	641.666.000	-0,3
Sariak	497.483.333	337.883.333	448.400.000	471.833.333	505.400.000	535.166.920	487.666.160	-0,3
GGR (Gross Gaming Revenue)	157.100.000	106.700.000	141.600.000	149.000.000	159.600.000	169.000.000	154.000.000	-0,3

Sarien eta jokatutako zenbatekoen arteko % 76ko ratioan oinarrituta kalkulatu dira jokatutako zenbatekoak eta sariak.

* Datuak 2013-2019 aldiaren urteko gehikuntza metagarriei buruzkoak dira.

Iturria: Karlos III.a Unibertsitatea, *Espainiako Jokoaren urtekaria 2018 eta 2020* txostena, Madril.

Are gehiago zehaztuta, ditugun datuek adierazten dute 2019an EAEn 154,0 milioi euroko GGRa sortu zela. Erakusten dute, halaber, GGRak gehikuntza izan zuela 2018. urtera arte, eta nolabaiteko jaitsiera, berriz, kontuan hartutako azken urtean. B motako makina horietan 641,7 milioi euro jokatu ziren guztira urte berean, eta sarietara 487,7 milioi euro bideratu ziren¹⁶.

Joko Enpresarien Euskal Federazioak BH motako edo ostalaritzako joko makinek sortutako balioari buruz egindako zenbatespenen arabera, makina horien batez besteko diru bilketa 14.636,5 eurokoa izan zen ezarritako makina bakoitzeko (2018ko datuak). Ez dago ia alderik lurralde historikoen artean. Era horretan, jokoaren arloko enpresek lortutako diru bilketa gordina (sariak kenduta eta jokoaren tasa eta ostalaritzari dagokiona ordaindu aurretik) 108.983.379 eurokoa izan da. Lurraldeen arabera bereizita, diru bilketa gordinaren zatirik handiena Bizkaian izan da (61.297.662 euro edo guztiaren % 56,2), eta haren atzetik, Gipuzkoan eta Araban (30.897.652 eta 16.788.066 euro, edo guztiaren % 28,4 eta % 15,4, hurrenez hurren).

Ondoren, eta jokoari dagozkion tasak kendu ondoren (hau da, 3.080 euro makina eta urte bakoitzeko), sektoreak makinek bildutakoaren erdia eman dio ostalaritzari. Era horretan, 2018an ostalaritzari guztira ordaindutakoa 43.024.850 euro izan zen; hau da, ostalaritzako establezimendu bakoitzak 5.778 euro inguru lortu zituen ezarritako makina bakoitzeko. Kopuru bera lortu du enpresa bakoitzak, gainera, ezarritako makina bakoitzeko.

Horrekin batera, Madrilgo Karlos III.a Unibertsitateak Espainiako estaturako eta B motako makina guztiei dagokienez egindako zenbatespenen arabera¹⁷, B motako makina horiek 6.399 euroko batez besteko diru sarrera garbi zenbatetsia ekarri zioten ostalaritza sektoreari, jokoaren gaineko tasa ordaindu eta

¹⁶ Zenbateko horiek kalkulatzeko, sarien eta jokatutako zenbatekoen arteko % 76ko ratioa erabili dugu.

¹⁷ Karlos III.a Unibertsitatea, *Espainiako Jokoaren urtekaria 2020* txostena, CODERE, Madril, 2020.

operadorearen eta lokalaren jabearen arteko banaketa egin ondoren (2019ko datuak).

5.7. Joko aretoak

Joko aretoak oinarritzko zati bat dira ausazko jokoen eta apustuen jardueren eskaintzan. Horri dagokionez, EAEn, 2020an, 84 enpresa operadore zeuden, eta 209 joko areto zuzentzen zituzten. Are gehiago zehaztuta, Bizkaian dago enpresa eta areto gehien (48 enpresa eta 111 areto), eta, ondoren, Gipuzkoan (27 enpresa eta 66 areto) eta Araban (9 enpresa eta 32 areto).


Haien bilakaerari begiratuta, enpresa operadoreak gutxitu egin dira 2011z geroztik, baina jaitsiera hori orekatu egin da joko aretoen hedapen handiarekin (pixkanaka ugaritu dira azken urteotan, 2011an 149 ziren, 2019an, 210); joera hori hiru lurralde historikoetan gertatu da. Egia da azken urtean joko aretoak zertxobait gutxitu direla (2019an, 210, eta 2020an, 209), baina oso aldaketa txikia da, eta goiz da oraindik aldaketa puntual bat edo joera aldaketa baten hasiera den jakiteko.

5.25 taula Joko aretoen enpresa operadoreen kopurua eta joko aretoen kopurua, lurralde historikoak eta EAE, 2011-2020

	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Joko aretoen enpresa operadoreak										
▪ Araba	10	9	7	8	7	8	9	9	9	9
▪ Bizkaia	46	40	37	37	37	42	46	46	47	48
▪ Gipuzkoa	41	37	36	36	37	35	33	32	32	27
▪ EAE	97	86	80	81	81	85	88	87	88	84
Joko aretoak										
▪ Araba	20	22	21	22	22	25	34	34	33	32
▪ Bizkaia	79	76	83	88	93	97	108	112	111	111
▪ Gipuzkoa	50	51	51	52	55	56	64	64	66	66
▪ EAE	149	149	155	162	170	178	206	210	210	209

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza.

5.10 grafikoa EAEn dauden joko aretoen kopuruaren bilakaera, 2011-2020



Iturria: Eusko Jaurlaritza, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza.

Azkenik, EAEko joko aretoetako B motako makinak baimenak 2.649 izan ziren 2020. urtean. Kopuru horrek goranzko joera erakutsi du azkeneko urteotan. Lurraldeei dagokienez, baimen gehienak Bizkaian biltzen dira (1.425 edo guztien % 53,8), eta Gipuzkoan eta Araban 824 eta 400 baimen daude, hurrenez hurren (2020ko datuak). Bilakaerari begiratuz gero, lurralde historiko guztietan dago baimenen goranzko joera, neurri batean Bizkaian izan ezik; 2020an jaitsiera txiki bat izan baitu, 2016tik 2019ra bitartean goranzko joera izan ondoren.

5.26 taula Joko aretoetako B mota makinak baimenak, lurralde historikoak eta EAE, 2016-2020

	2016	2017	2018	2019	2020
Araba	333	370	389	386	400
Bizkaia	1.328	1.392	1.398	1.436	1.425
Gipuzkoa	757	773	817	819	824
EAE	2.418	2.535	2.604	2.641	2.649

Joko aretoetako B motako makinak baimenei buruzko datuak ez daude banakatuta 2016. urtea baino lehen, orduan onetsi baitzen 120/2016 araudi berria.

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza.

5.8. Estatu mailako onlineko jokoak

2012ko ekainetik (hilabete hartan hasi zen Espainian onlineko joko arautua), Espainiako Gobernuaren Jokoa Antolatze Zuzendaritza Nagusiak guztira jokatuak zenbatekoei zein urteko GGR¹⁸ buruzko informazioa ematen du urtero. Estatu mailako lizentzia duten jokoaren enpresa operadore erreserbatu gabeek egindako eragiketak baino ez dira sartzen informazio horren barruan, eta ez daude jasota, ordea, onlineko kanalari dagozkion Estatuko Loteria eta Apustuen Estatu Sozietatearen (SELAE) elkarrekiko apustuak. Zoritxarrez, datu horiek ez daude eskualdeen arabera banakatuta, eta ez dago, hortaz, onlineko jokoak EAEn zenbatekoa den adierazten duen iturri ofizialik.

Hori gorabehera, Ekonomia Itunak xedatutakoaren arabera, “subjektu pasiboek” –operadoreek, antolatzaileek eta joko jarduerak egiten dituztenek– “egoitza fiskala edozein lekutan dutela, ekitaldiaren barruan lurralde bakoitzean egindako eragiketen zenbatekoaren arabera ordainduko diete zerga foru aldundiei, Estatuko Administrazioari edo biei. Ekitaldian lurralde bakoitzean egindako eragiketen zenbatekoaren proportzioa Euskadin eta lurralde erkidean egoiliarak diren jokalariek joko modalitate bakoitzean jokatuak zenbatekoen pisu erlatiboaren arabera zehaztuko da”.

Orain arte, foru aldundiek nork bere lurralde historikoan eginiko onlineko jokoaren bolumenari buruzko informazio partziala izan dute, neurri batean estatu mailako enpresa operadore askok estatuko Zerga Agentziari ordaintzen zizkiotelako zergak, lurralde erkidean eta foru lurraldeetan egindako gastua bereizi gabe. Azken urteotan, halere, EAEko foru aldundiek lurralde historiko bakoitzean eginiko onlineko jokoaren bolumenari buruzko gero eta informazio zehatzagoa bildu izan dute, eta, horretarako, estatu mailako onlineko jokoaren enpresa operadoreek lau hilean behin egiten duten Joko Jardueren gaineko Zergaren (763 ereduak) aitortpenaren datuez baliatzen dira¹⁹.

Illo horretatik, eskura dagoen informazioaren arabera, 2018. urtean, 39 enpresa operadoreak aintzat hartuta²⁰, estatu mailako lizentzia duten jokoaren enpresa operadore erreserbatu gabekoekin online jokatuak zenbateko guztien % 4,06 jokatu ziren EAEn. Ehuneko hori honela banatzen da lurraldeen artean: % 0,87 Arabari dagokio; % 1,43, Gipuzkoari, eta % 1,75, Bizkaiari.

Espainiako Gobernuaren Jokoa Antolatze Zuzendaritza Nagusiak emandako datuak kontuan hartuta, honako kopuru hauek jokatu dituzte estatuan 2017, 2018

¹⁸ GGR (*Gross Gaming Revenue* edo jokoaren marjina garbia): jokoan parte hartzerak bideratutakoaren guztizko zenbatekoa, operadoreak parte hartzen dutenei ordaindutako bonuak eta sariak kenduta. Joko “errealak” litzateke, alegia.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Saila elkarlanean aritu da aholkulari taldearekin, eta aukera eman dio 2018. urteko ekitaldiari buruz zegoen informazioa eskuratzeko.

²⁰ 2018ko uztailan, Espainian estatu mailako onlineko jokoaren 53 operadore zeuden guztira; 2019an, 79ra iritsi ziren (hemendik hartu dugu informazio hori: Karlos III.a Unibertsitatea, *Espainiako Jokoen urtekaria 2018 eta 2020* txostena, CODERE, Madril, 2018).

eta 2019. urteetan: 13.298.453.554, 17.349.925.252 eta 18.778.857.140 euro, hurrenez hurren, eta horietatik 557.348.163, 699.335.341 eta 748.244.266 euro GGRari zegozkion. Hori horrela, aurretik adierazitako ehunekoak aplikatuz gero, EAEn honako zenbateko hauek jokatu dira online estatu mailako enpresa operadoreekin: 539.802.220, 704.256.937 eta 762.421.600 euro (2017, 2018 eta 2019rako datuak, hurrenez hurren), eta GGR delakoa, berriz, 22.623.516, 28.386.968 eta 30.378.717 euro inguru izan da (2017, 2018 eta 2019ko datuak, hurrenez hurren).

5.27 taula Onlineko jokoan jokatutako zenbatekoak, lurralde historikoak, EAE eta estatuko guztizkoa (eurotan), 2017-2019

	Jokatutako zenbatekoak			GGR		
	2017	2018	2019	2017	2018	2019
Araba	116.329.723	151.770.428	163.376.057	4.875.466	6.117.515	6.509.725
Bizkaia	190.329.382	248.314.628	268.537.657	7.976.847	10.008.988	10.699.893
Gipuzkoa	233.143.115	304.171.881	328.630.000	9.771.203	12.260.465	13.094.275
EAE, guztira	539.802.220	704.256.937	762.421.600	22.623.516	28.386.968	30.378.717
Estatua, guztira	13.298.453.554	17.349.925.252	18.778.857.140	557.348.163	699.335.341	748.244.266

Iturria: Ogasun Ministerioa, Jokoa Antolatze Zuzendaritza Nagusia, estatuko onlineko jokoaren merkatua.

Hala, bada, 2019ko datuak hartzen baditugu erreferentziatzat (ikus txosten honen 4.3 atala), estatu mailako onlineko jokoaren guztizko gastuaren iturri nagusia dela ondorioztatzen ahal dugu, B makinaren, SELAren jokoen edo kudeaketa pribatuko kirol apustuen aurretik. Gastu "errealari" begiratzen badiogu, ordea, nabarmen txikiagoa da estatu mailako onlineko apustuen pisua; alegia, ONCEn jokoen eta bingoen arteko erdibidean dago.

5.9. Beste batzuk

Atal honetan orain arte jorratu ez ditugun jokoen datuak aurkeztuko ditugu, zozketak²¹ eta ausazko konbinazioak,²² funtsean. Zozketei dagokienez, 2020an 17 zozketa egin ziren guztira EAEn; 2014an hasitako beharrezko joera berresten du horrek (2019 salbuespena izan zen, halere, gorakada argia egon baitzen).

²¹ Zozketa esaten zaio ausaz norbaiti zerbait esleitzeari, zenbait pertsonaren artean txartel zenbakidunak banatu edo saldu, eta horietako bat edo batzuk ausaz txartel saridun gisa aukeratuta.

²² Ausazko konbinazioak: produktu bat edo zerbitzu batzuk sustatzeko edo publizitatea emateko egiten diren zozketak, eta dena delako produktuaren edo zerbitzuaren kontsumoa da ordain bakarra (gainpreziorik edo tarifakazio osagaririk gabe). Ez dago, beraz, eskudiruzko saririk.

Lurraldeen ikuspegitik, Bizkaian antolatu zuten zozketa gehien, bai urte horretan (17tik 14), bai 2014. urtearen ondorengo guztietan ere.

5.28 taula Zozketen kopurua, lurralde historikoak eta EAE, 2011-2020

	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Araba	2	1	2	4	3	3	3	4	6	3
Bizkaia	1	1	1	23	17	18	13	13	17	14
Gipuzkoa	1	1	9	3	1	2	2	-	1	-
EAE	4	3	12	30	21	23	18	17	24	17

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza.

Halaber, EAEn 2020an ausazko 50 konbinazio egin ziren. Datu hori oso txikia da aurreko urteetakoaren aldean (2019an ausazko 102 konbinazio egin ziren, eta 90, berriz, 2018an. Litekeena da hori gertatu izana urte horretan izandako ezohiko egoera sanitario eta sozialaren ondorioz. Horrez gain, lurralde historikoen arabera informazioak erakusten du ausazko konbinazio gehienak Bizkaian egin zirela (30 guztira, 2020an, eta haren atzetik, Gipuzkoan (11) eta Araban (9).

5.29 koadroa Ausazko konbinazioen kopurua, lurralde historikoak eta EAE, 2011-2020

	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Araba	20	21	11	21	11	11	12	23	25	9
Bizkaia	48	45	42	43	45	31	6	38	49	30
Gipuzkoa	36	18	13	20	33	35	29	29	28	11
EAE	104	84	66	84	89	77	47	90	102	50

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza.



6.

Estatu mailako datu konparatiboak



Estatu mailako datu konparatiboak

Azken atal honetan, datu konparatiboak azalduko ditugu: EAEn apustu, loteria eta ausazko jokoetako gastu errealaren bolumena zenbatekoa den estatuaren barruan²³. Dugun informazioaren arabera, EAEk 467,4 milioi euroko gastu erreal izan zuen 2019an; estatuko gastu osoaren % 5,1, alegia. Proportzioa hori txikixeagoa da EAEko BPGd-ak estatuko guztizkoan duen ehunekoaren aldean (% 6,4 2019an). Bilakaera aintzat hartuta, ehuneko horrek gorabehera handiak izan ditu 2014tik 2019ra arteko aldian, % 5,0tik % 6,4ra aldatu baita, urtearen arabera.

²³ Aurkeztutako datuak "gastu errealari" buruzkoak dira; hau da, guztira jokatutako zenbatekoen eta lortutako sarien arteko aldeari dagozkio. Horrez gain, SELAEren eta ONCEren apustueta, bingoetan, kasinoetan, kudeaketa pribatuko kirol apustueta eta B motako makinetan egindako gastuari buruzko informazioa jasotzen dute. Datu horiek 2014-2019 aldikoak dira, aldi horren gaineko informazio osoa baitago, EAEn eta estatuaren arteko konparazioa behar bezala egin ahal izateko.



Estatu mailako datu konparatiboak

6.1 taula Apustu, loteria eta ausazko jokoetan izandako gastu erreala (jokatutako zenbatekoen eta lortuko sarien arteko aldea) (eurotan), EAE eta estatuko guztizkoa, 2014-2019

	2014	2015	2016	2017	2018	2019	Δ%*
Loteria Nazionalea, SELAE							
▪ EAE	110.480.243	132.888.714	157.904.174	201.852.652	166.781.848	118.580.253	1,5
▪ Estatua	1.069.036.817	1.520.940.995	1.392.527.678	1.477.421.239	1.460.871.628	1.717.477.556	12,1
SELAEren gainerakoak							
▪ EAE	72.562.761	104.884.278	144.769.628	96.826.451	93.306.463	73.968.861	0,4
▪ Estatua	1.543.389.374	1.769.644.349	1.749.603.119	1.731.505.249	1.949.891.361	1.824.484.834	3,6
ONCEren zozketak							
▪ EAE	23.519.546	32.384.680	31.162.287	23.502.792	30.113.492	39.134.333	13,3
▪ Estatua	953.060.000	930.860.000	937.340.000	980.340.000	1.033.092.900	1.061.895.000	2,3
Bingoak							
▪ EAE	22.185.000	25.680.000	20.390.988	20.435.696	19.524.542	19.583.486	-2,3
▪ Estatua	554.340.000	580.780.000	575.010.000	578.480.000	610.789.661	588.274.753	1,2
Kasinoak							
▪ EAE	10.597.446	11.165.222	8.283.877	10.832.222	3.776.507	10.760.000	0,3
▪ Estatua	287.765.853	314.485.357	345.245.955	350.554.760	359.950.000	354.750.000	4,7
Kudeaketa pribatuko kirol apustuak							
▪ EAE	37.502.511	38.051.538	40.563.052	46.137.192	48.553.019	53.395.501	8,5
▪ Estatua	173.191.191	219.199.320	283.816.430	327.315.113	382.479.787	393.955.753	25,5
B motako makinak							
▪ EAE	106.700.000	141.600.000	149.000.000	159.600.000	169.000.000	154.000.000	8,9
▪ Estatua	3.061.000.000	3.213.000.000	3.406.000.000	3.653.000.000	3.554.000.000	3.531.000.000	3,1
Gutizko osoa							
▪ EAE	383.547.507	486.654.432	552.074.006	559.187.005	531.055.871	467.422.434	4,4
▪ Estatua	7.641.783.235	8.548.910.021	8.689.543.182	9.098.616.361	9.351.075.337	9.117.087.896	3,9

* Datuak 2014-2017 aldiaren urteko gehikuntza metagarriari buruzkoak dira.

EAEren kasuan, 2018ko kasinoetako datuak (eta, ondorioz, baita gutizko osoarenak ere) ez dira konparagarriak, mahaletan izandako gastua baino ez dutelako jasotzen, C motako makinetako gastu erreala alde batera utzita.

Iturria: Zenbait iturri.

Gaian are gehiago sakonduta, eskura dugun informazioari esker, ikus dezakegu EAEri estatuko gastu errealean dagokion ehunekoa nabarmen handitzen dela kudeaketa pribatuko kirol apustuen kasuan, batezbestekoa halako hiru ia (estatuko gastu erreala guztiaren % 13,6, 2019ko datuen arabera). Horrekin batera, oso nabarmen ageri da, halaber, SELAEren Loteria Nazionaleko gastua (estatuko gastu errealearen % 6,9). Aitzitik, bingo eta kasinoei dagokienez, estatuko gastu errealearen % 3 inguru dagokio EAEri, eta gainerako joko motetan EAEren proportzioa % 4 da gutxi gorabehera (2019ko datuak).




Estatu mailako datu konparatiboak

6.2 taula Apustu, loteria eta ausazko jokoetan EAEn izandako gastu errealari (jokatutako zenbatekoen eta lortutako sarien arteko aldea) estatuko guztizkoaren barruan zer ehuneko dagokion, 2014-2019

	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Loteria Nazionala, SELAE	10,3	8,7	11,3	13,7	11,4	6,9
SELAEren gainerakoak	4,7	5,9	8,3	5,6	4,8	4,1
ONCEren zozketak	2,5	3,5	3,3	2,4	2,9	3,7
Bingoak	4,0	4,4	3,5	3,5	3,2	3,3
Kasinoak	3,7	3,6	2,4	3,1	1,0	3,0
Kudeaketa pribatuko kirol apustuak	21,7	17,4	14,3	14,1	12,7	13,6
B motako makinak	3,5	4,4	4,4	4,4	4,8	4,4
GUZTIRA	5,0	5,7	6,4	6,1	5,7	5,1

Iturria: Zenbait iturri.

6.1 grafikoa Apustu, loteria eta ausazko jokoetan EAEn izandako gastu errealari (jokatutako zenbatekoen eta lortutako sarien arteko aldea) estatuko guztizkoaren barruan zer ehuneko dagokion, 2019



Iturria: Zenbait iturri.

Aztertutako apustu, ausazko joko eta loteria motetan izandako *per capita* gastu errealari dagokionez, ikus daiteke 18 urtez gorako EAEko biztanleek 256,04 euro gastatu zituztela batez beste, estatuko batez besteko gastu erreala –237,29 euro– baino gehixeago (% 7,9 gehiago, alegia). Denboran izaniko bilakaeraren



Estatu mailako datu konparatiboak

ikuspegitik, EAEko batez besteko *per capita* gastuak gora egin zuen 2017ra arte, eta behera, orduz geroztik, baina estatuko batezbestekoa baino handiagoa izan da beti (azken urteotan aldea murriztuz joan da, halere). Are gehiago zehaztuta, lau joko mota hauetan biltzen da gehienbat *per capita* gastu erreala: B motako makinetan (84,36 euro), SELAEn Loteria Nazonalean (64,95), SELAEn gainerako loteria eta jokoetan (40,52), eta, azkenik, kudeaketa pribatuko kirol apustueta (29,25).

6.3 taula Gastu erreala (jokatutako zenbatekoen eta lortutako sarien arteko aldea) apustu, loteria eta ausazko jokoetan (*per capita* eurotan), EAE eta estatuko guztizkoa, 2014-2019

	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Loteria Nazionala, SELAE						
▪ EAE	61,07	73,68	87,72	112,11	91,77	64,95
▪ Estatua	28,02	39,93	36,56	38,71	37,71	44,70
SELAEn gainerakoak						
▪ EAE	40,11	58,15	80,42	53,78	51,34	40,52
▪ Estatua	40,46	46,46	45,93	45,36	50,33	47,49
ONCEren zozketak						
▪ EAE	13,00	17,96	17,31	13,05	16,57	21,44
▪ Estatua	24,98	24,44	24,61	25,68	26,67	27,64
Bingoak						
▪ EAE	12,26	14,24	11,33	11,35	10,74	10,73
▪ Estatua	14,53	15,25	15,09	15,16	15,77	15,31
Kasinoak						
▪ EAE	5,86	6,19	4,60	6,02	2,08	5,89
▪ Estatua	7,54	8,26	9,06	9,18	9,29	9,23
Kudeaketa pribatuko kirol apustuak						
▪ EAE	20,73	21,10	22,53	25,62	26,72	29,25
▪ Estatua	4,54	5,76	7,45	8,58	9,87	10,25
B motako makinak						
▪ EAE	58,98	78,51	82,77	88,64	92,99	84,36
▪ Estatua	80,24	84,36	89,41	95,70	91,73	91,90
Guztizko osoa						
▪ EAE	212,01	269,82	306,69	310,57	292,21	256,04
▪ Estatua	200,31	224,46	228,11	238,37	241,36	237,29


18 urtetik gorako biztanleak kontuan hartuta

Iturria: Zenbait iturri.



Estatu mailako datu konparatiboak

6.2 grafikoa Guztizko gastu erreala (jokatutako zenbatekoen eta lortutako sarien arteko aldea) apustu, loteria eta ausazko jokoetan (*per capita* eurotan), EAE eta estatuko guztizkoa, 2014-2019



Iturria: Zenbait iturri.

Azterketa apustu moten arabera egiten bada, ikusten dugu ezen, oro har, EAEko biztanleen batez besteko *per capita* gastu erreala joko jakin batzuetan handiagoa dela estatuko batezbestekoa baino; hala, bada, horri dagokionez, nabarmen da kudeaketa pribatuko kirol apustuetako gastuen arteko aldea (29,25 euro eta 10,25 euro, hurrenez hurren) eta, neurri txikiagoan, SELAEn Loteria Nazionaleko gastuena (64,99 euro eta 44,70 euro, hurrenez hurren). Gainerako joko motetako gastua, aldiz, txikiagoa da EAEn estatuko batezbestekoaren aldean (ONCE, bingoak, kasinoak edo B motako makinak). Alde horri eutsi egin zaio, oro har, 2014tik 2019ra arteko aldian.

Azkenik, estatu mailako onlineko jokoko *per capita* gastu erreala 16,64 eurokoa izan zen EAEn 2019. urtean; estatuko batezbestekoa (19,47 euro) baino gutxiago. Hori horrela, guztizko zenbatekoan onlineko jokoaren kalkulua ere jasotzen badugu, 272,68 eurokoa da 18 urtetik gorako pertsonen *per capita* gastu erreal osoa (2019. urtea); estatuko batez besteko gastu erreala (256,76 euro) baino handixeagoa, hortaz.



Anexo A.

Metodologia



Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) eta Espainiako Estatu mailako informazio kuantitatiboko askotariko iturriak erabili ditugu txosten hau egiteko orduan. Are gehiago zehaztuta, honako estatistika eta bibliografia iturri nagusi hauek erabili ditugu:

- SABI, enpresen datu basea (Balantze Iberiarren Azterketa Sistema)
- Eusko Jaurlaritzako Ogasun Saila, EAEko jokoaren gaineko zergei buruzko informazioa, zenbait urte (*ad hoc* eskaera)
- Eustat, Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda, zenbait urte
- Eustat, Makromagnitude sektorialak (*ad hoc* eskaera)
- Joko Enpresarien Euskal Federazioa, zenbait *ad hoc* informazio
- Kasinoen patronala, zenbait *ad hoc* informazio
- Eusko Jaurlaritza, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza, *ad hoc* emandako estatistika informazioa
- Eusko Jaurlaritza, Segurtasuneko Zuzendariordetza, Urteko Memoria, zenbait urte
- Ogasun Ministerioa, Jokoa Antolatze Zuzendaritza Nagusia, Espainiako jokoaren merkatuari buruzko datuak, 2017
- SEPE, Lan merkatuari buruzko txostena, zenbait lurralde historiko eta urte
- Karlos III.a Unibertsitatea, txosten hauek: *Espainiako jokoaren urtekaria 2018*, *Espainiako jokoaren urtekaria 2019* eta *Espainiako jokoaren urtekaria 2020* (CODERE, Madril, 2018, 2019 eta 2020).

Eskertu nahi dugu, orobat, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailak emandako laguntza, baimena eman baitigu honako datu hauek aztertzeke: 2018ko ekitaldiko datuak eta Joko Jardueren gaineko Zergaren lau hilean behingo aitorpenetan (763 eredua) jasotako datuak, estatu mailako onlineko joko operadoreei dagokienez.